



Txostena 2014

Emakumearen Euskal Erakundea
2014ko Jardueren Memoria

sartu

1.


Hitzaurrea

2.

Administrazio
Publikoen
Esparruan
Egindako Jarduerak

3.

Gizarte Osoa Xede
Duten Jarduerak



Aurkezpena

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2015eko otsailaren 18an egindako bileran onetsi zuen agiri hau. Erakundeei, antolakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2014. urtean egindako jardueren berri ematea da helburua.

Lehenengoz, Emakunderen barneko antolakuntza eta egitekoa azaltzen ditu, eta horren arabera, atal handi bitan egituratzen da: Lehenengo atalak batik bat herri erakundeen esparruan egindako jardura biltzen du, politika publikoen diseinu, bultzada, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak nahiz emakumeek politika horietan duten parte-hartzea sustatzeko ekintzak ardatz hartzen dituen lana. Atal honetan herri aginteekin egindako ekintzak azaltzen dira, bereziki Administrazioaren hiru mailekin egindakoak, baita estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeeikiko harremanen esparruan egindakoak ere.

Bigarren atalean, gizarte osoarentzat bideratutako jardura azaltzen da, bai agente edo talde antolatuen bitartez egindakoa (adibidez, emakume-elkarteek edo enpresa eta erakunde pribatuek egindakoa), bai herritarrentzat egindakoa. Jardura honetan bi alderdi sartzen dira: alde batetik diskriminazio-egoera zehatzei emandako erantzuna, eta bestetik gizarte-sentsibilizazioa.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkie txosten honetan bildutako jardura guztiak profesionaltasunez egiten laguntza eman duten administrazioetako nahiz beste hainbat erakundetako pertsona guztiei, bereziki berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakunderen Zuzendaritzak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundean lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

**Eskerrik asko
guztioi**

Aurkibidea

Aurkezpena

1. HITZAURREA

- 1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Egitekoa eta antolakuntza
- 1.2. Legegintzaldiko bigarren urtea. Sendotze-aldia
- 1.3. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUERAK

- 2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa
 - 2.1.1. EAEko Administrazio Orokorra
 - 2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa
 - 2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazio eta lankidetzatza
- 2.2. Politika publikoen ebaluazioa
- 2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak
 - 2.3.1. Aholkularitza juridikoa
 - 2.3.2. Prestakuntza
 - 2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK

- 3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea
 - 3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin
 - 3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak
 - 3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzak
- 3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza
 - 3.2.1. Berdintasun-planak. Aholkularitza
 - 3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak
 - 3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzatza Erakundeak
 - 3.2.4. Aholkularitza-entitateen homologazioa eta jarraipena
 - 3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk
- 3.3. Herritarrei zuzeneko arreta emateko jarduketak, sektore pribatuan berdintasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioa defendatuta
- 3.4. Gizarte-sentsibilizazioa
 - 3.4.1. Nahiko programa
 - 3.4.2. Beldur Barik programaren esperientzia pilotua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan
 - 3.4.3. Gizonduz ekimena
 - 3.4.4. Kanpainak
 - 3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea
 - 3.4.6. Emakunde aldizkariaren argitalpena
 - 3.4.7. Hedabideetan agertzea
 - 3.4.8. Berdintasunaren Emakunde Saria
 - 3.4.9. Emakunderen webgunea eta sare sozialak
 - 3.4.10. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan

4. ERASKINAK

- 1. Eranskina:** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal plana
- 2. Eranskina:** Kontsultak eta eskaerak. Dokumentazio-Zentroa
- 3. Eranskina:** Diru-laguntza jaso duten emakumeen Elkarrekin eta Federazioak
- 4. Eranskina:** Diru-laguntza jasotzen duten bestelako Elkarrekin eta Antolakundeak
- 5. Eranskina:** Kontsultak, salaketan prozedurak eta kexak

5. CLIP ART IRUDIAK

1. HITZAURREA

1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Egitekoa eta antolakuntza

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, izaera administratiboa duen erakunde autonomiadun gisa, berezko nortasun juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzara atxikita. Emakunderen egitekoa erakunde publiko eta pribatuen berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sensibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko -benetakoa eta eraginkorra-, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kultura-gintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundearen jardura eremu handi biak hauek dira: batetik, administrazio publikoekin lan egitea, administrazio horietan berdintasunaren aldeko egiturak sendotuz eta politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak abian jar daitezela sustatuz, eta, bestetik, gizartearen orokorrean lan egitea, berdintasun-politiketan oinarrituta balio-aldaketak, emakumeen ahalduntzea, antolaketa sozial erantzukidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea bultzatzeko.

Zuzendaritza-organoak

Emakunderen jardura gidatzen duten organoak hauek dira:

- Zuzendaritza Kontseilua (urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua), honako kide hauek dituena: Kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria; Kontseiluburuordea, Emakundeko Zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako Kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte gaiak; foru eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria. Zuzendaritza Kontseilua 2013an berritu zen, X. Legegintzaldiaren hasieran, 2013ko maiatzaren 27an egindako bileran.
- Zuzendaria (bere eginkizunak 214/2006 Dekretuan daude araututa). X. Legegintzaldiaren hasieran Izaskun Landaia Larizgoitia Emakundeko zuzendari izendatu zen (137/2013 Dekretua, urtarrilaren 29koa).

Emakunde Kontseilua



Kudeaketa-organoak

Emakundek kudeaketa-organo hauek dauzka:

- Idazkaritza nagusi bat. X. Legegintzaldiaren hasieran Ana Alberdi Zubía Emakundeko idazkari nagusi izendatu zen (159/2013 Dekretua, otsailaren 12koa).
- Aholkularitza bat. X. Legegintzaldiaren hasieran, Karmele Jaio Eiguren prentsa- eta komunikazio-aholkulari izendatu zen.
- Funtzio-arloak: Emakunderen barne antolaketa kudeaketa-arlo funtzional hauetan ezartzen da:
 - Administrazioa.
 - Aholkularitza juridikoa eta informazioa.
 - Lankidetzatza instituzionala.
 - Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.
 - Programak eta prestakuntza.
 - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.
 - Berdintasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioa defendatzea.

Koordinazio-organoak

Emakundek koordinazio-organo hauek dauzka bere egitura organikoaren barruan:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.
- Emakunderen Aholku Batzordea- Emakumeen elkartearen partaidetza-organoa.
- Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea.
- Begira, Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea.

1.2. Legegintzaldiko bigarren urtea. Sendotze-aldia

2014. urtean, zenbait proiektu eta egitura sendotu ditu Emakundek, bai eta herritarrei oro har bideratutako sentsibilizazio-ekintzak indartu ere. 2013an besteak beste Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana egin zen, botere publikoen berdintasunaren alorreko jarduketako illoak ezartzen dituen legegintzaldi osorako. 2014an, aldiz, barne-egitura berriak, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Alorra eta



Begira
Batzordea



Berdintasun Printzipioaren eta Bazterketa ezaren Alorra sendotu dira, eta, era berean, erakundearen sensibilizazio-helburua indartzen duten eta gizarte gisa aurrera egiteko berdintasunaren alde lan egitearen beharra nabarmentzen duten proiektuak abian jarri dira.

2014an, mota guztietako erakunde eta entitateekiko lankidetzaz bultzatzeari eutsi dio Emakundek, gizartearen esparru guztietan berdintasunaren alde lan egiteko, eta berriz ekin dio, gogotsu, emakumeen elkarteekiko harremanari, emakumeen herritartasun, eskubide eta bizitza publikoan duten partaidetzaren inguruan gogoeta egiteko, prestakuntza jasotzeko eta elkartzeko espazioak eskainiz.

Halaber, nazioarteko esparruari begiratzen jarraitu du Emakundek, eta nazioarteko erakunde eta entitateek, hari begiratu ez ezik, laguntza ere eskatu diote, berdintasun-politikekin lotutako zenbait gairen inguruko aditu gisa.

2014an, gainera, berrikuntzaren aldeko apustua mantendu du, kalitate handiagoko zerbitzu publikoa eskaintze aldera. Bide horretan, alderdi batzuetan arreta berezia jarri da —esaterako, lidergoan, barne-kudeaketaren hobekuntzan eta gardentasunean—, guztia ere erakundearen helburu estrategikoak ahal adina eraginkortasunez bete eta herritarrei zerbitzurik onena eskaintzeko asmoarekin.

1.3. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

Emakunderen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremana etengabea eta joria da. 2014an, Emakundeko zuzendaria, legebiltzarreko taldeen galderei idatziz erantzuteaz gain, hainbat aldiz agertu da legebiltzarraren aurrean:

Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen aurrean

- Otsailaren 14an, Herrizaingo Saileko Indarkeriaren Zuzendaritzaren eskumen eta baliabideen berrantolaketa (aurreko legegintzaldian desberdina zen) eta emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko sisGaia azaldu zituen. Agerraldi horretan bertan, 2013ko aurrekontu-gauzatzearen berri eman zuen.

2014an, mota guztietako erakunde eta entitateekiko lankidetzaz bultzatzeari eutsi dio Emakundek, gizartearen esparru guztietan berdintasunaren alde lan egiteko

Legebiltzarra VI Plana



- Martxoaren 24an, Espainiako Gobernuak Abortuaren Legean egin nahi dituen aldaketen inguruko iritzia adierazi zuen.
- Martxoaren 31n, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana aurkeztu zuen, zuzendariak berak eskatuta.
- Maiatzaren 6ko agerraldian Begira Behatokiaren jardura-plana eta berau garatzeko bitartekoak azaldu zituen, bai eta berdintasunaren alorrean erakundeak udalekin duen harremanaren berri eman ere.
- Maiatzaren 27an egindako agerraldian, 14/2012 Legearen garapenaren inguruko informazioa eman zuen, eta, horretaz aparte, Emakumeen Kontseiluaz eta kontziliazioaren esparruan Emakume garatzen ari den neurriez mintzatu zen (14/2012 Legea, transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa).
- Azaroaren 5ean, gai hauei buruz hitz egin zuen batzordearen aurrean: Botere publikoen jarduketara Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Planaren garapenean eta ezarpenean; EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak txostena; Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorreko berdintasun-planaren elaborazioaren eta negoziazioaren egoera; emakumeen genitalen mutilazioaren inguruko diagnostikoa, eta egiten ari den prebentzio-protokoloan egindako aurrerapenak.

Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean

- Martxoaren 4an, Euskal Estatistika Planaren lege-proiektuan aurreikusitako «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna» atalaren inguruan zuen iritzia azaldu zuen.
- Azaroaren 11n, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015eko ekitaldirako aurrekontu orokorren aurkezpen ofiziala egin zuen.



Legebiltzarra VI
Plana



2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUERAK

Administrazio publikoekin egindako lana Emakunderen jarduera-esparru handietako bat da. Esparru horretan politika publikoen sustapen, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak egiten ditu, eta gizarteak politika horietan parte har dezala sustatzen du. Arlo horretan botere publikoekin egindako jarduerak aipatzen dira —bereziki administrazioaren hiru mailekin egindakoak—, eta estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan egindakoak, eta bereizi egiten ditu egitura organiko batzuen eta besteen esparruan dauden sustapen-eta koordinazio-ekintzak, alde batetik; alde biko harremanen beste testuinguru batzuetan egiten direnak, bestetik; eta beste batzuk: prestakuntza eta aholkularitza ematea, laguntza-dokumentuak egitea, txostenak prestatzea, etab.

2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundearen koordinazioa

2.1.1. EAEko Administrazio Orokorra

Emakundek Sailarteko Batzordearen bidez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna. Haatik, azpimarratu beharra dago 2014ko hasieran, eta 2013ko abenduan Berdintasunerako VI. Plana onartzearen ondorioz, gobernuko ehun goi-karguri aurkeztu ziela Emakundek aipatu plana, Lehendakaria buru izan zen otsailaren 10eko bilkuran.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Batzorde hori, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituen jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita dago; batzordeko presidentea Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeko presidenteordea, Emakundeko zuzendaria.

Emakundek Sailarteko Batzordearen bidez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna

Erakundeko idazkari nagusiak idazkaritza-lanak egiten ditu, eta batzordekide gisa Lehendakariatzako idazkari nagusia eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburuorde bat aritzen dira. Sailarteko Batzordeak 2014ko ekainean ohiko bilera egin zuen, eta gai hauek landu zituen:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan Eusko Jaurlaritzak 2012an gauzatutako jardueraren jarraipenari buruzko txostena aurkeztea.
2. Sail bakoitzak legegintzaldiko programa-dokumentua aurkeztea eta entregatzea, 2014ko planifikazioa barne.
3. Emakunderen legegintzaldiko plana aurkeztea, 2014. urteari dagokion plangintza barne.

Batzorde horretako lantalde teknikoaren helburua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen dekretuan xedatzen denarekin bat¹, Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea da, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez.

1. Ikusi Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. atalean.

Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Taldea eta, sailarteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen du; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlaritza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak proposatzen ditu. Ildo horretan, 2014. urte osoan, Jaurlaritzako sailei legealdiko programa-dokumentu propioa taxutzeko lankidetzeta eta aholkularitza eskaini zaizkie, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.2 artikuluan aurreikusten den moduan.

Aholkularitza eta informazioko lanean, 342 kontsultari erantzun zaie, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta erakunde publikoek egindakoak. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzeta eman da; batez ere, materialak berrikusteko eta prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintza berritzaileak abian jartzeko. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira.

Hauek dira Emakundek Sailarteko Lantalde Teknikoaren alorrean 2014. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Legegintzaldiko programa-dokumentuak egiteko irizpideak eman ditu.
- Genero-berdintasuna sustatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari eta garatu beharreko lan-ildoei buruz informatu du.
- X. Legegintzaldian, Emakundek sailetan lehentasun gisa hartzen dituen alderdien inguruan informatu du.
- Erakunde Publikoen Sareari buruzko gaien analisia koordinatu du.
- Eusko Jaurlaritzako sailtako berdintasun-politiketan organismo autonomoei, erakunde publikoei eta sozietate publikoei eman behar zaien tratamenduari buruzko proposamenak aztertu eta egin ditu.
- Sailarteko Batzordeak izandako bileraren berri eman du.
- Sailtako programa-dokumentuak argitaratzeko irizpideak eman ditu.
- Administrazio publikoko eta bere erakunde autonomoetako eta beste batzuetako langileentzako berdintasun-prestakuntza hobetzeko prozesua proposatu du.
- Hobekuntzak bultzatu ditu, Eusko Jaurlaritzako sailen eta botere publikoen jarduketaren jarraipen-txostenak oinarri hartuta.

Eusko Legebiltzarra



Aholkularitza eta informazioko lanean, 342 kontsultari erantzun zaie, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta erakunde publikoek egindakoak

Alde biko lana sailekin

Sailarteko Talde Teknikoarekin egiten den lanaz gain, bi aldeko lana egiten du Emakundek sail jakin batzuekin, sail horiek proiektu eta zeregin zehatzen harian egiten dituzten eskakizunei erantzuteko, batik bat. 2014. urtean, jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Hainbat sailari atxikitako kontseilu eta batzordeetan parte hartu du: Publizitate Institutuzionalari buruzko Sailarteko Batzordea, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Sailarteko Batzordea, Gazte Politika Integraleko Batzorde Teknikoa, Osasun Batzorde Teknikoa, Euskadiko EDaren Sailarteko Informazio Batzordea, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseilua, Immigranteen Integrazioa eta Partaidetza Sozialerako Foroa, Euskadiko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua, Droga Mendekotasunen Euskal Kontseilua, Landa Eremuko Emakumeen Batzordea, Adineko Pertsonen Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, Familiaren Euskal Kontseilua.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera, euskal hezkuntza-sisGaian hezkidetzaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren jarraipenean esku hartu du: Jarraipen Batzordean zein Batzorde Teknikoan parte hartu du, eta, horretaz aparte, interesa agertu duten ikastetxei Nahiko eta Beldur Barik programak ezartzeko materialak, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eman die doan (programei buruzko xehetasun gehiago, 3.4.1 eta 3.4.2 ataletan).

Gainera, sail horrekin, EHUrekin eta EITBrekin lankidetzan aritu da, 2014ko Beldur Barik kanpaina hezkuntzaren, kulturaren eta gazteriaren eremuan hedatzeko estrategiak eta jarduketak definitze aldera.

Sailak bultzatutako lantaldearekin batera, irakasleei Prestakuntza eta Laneko Orientabidea zeharkako modulua genero-ikuspegitik irakasten laguntzeko gidaren elaborazioan parte hartu du, hurrengo goi-mailako teknikarien titulazio hauek arautzen dituzten dekretuetan xertatzeko proposatutako helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideetan oinarrituta: Publizitate Grafikoko Arte Plastikoak eta Diseinua, Argazkigintzako Arte Plastikoak eta Diseinua, Animazioko Arte Plastikoak eta Diseinua eta Ilustrazioko Diseinua (guztiak Komunikazio Grafikoen eta Ikus entzunezkoaren lanbide-arlo artistikoan sartzen dira); era berean, gidak bere helburu bat ere du, alegia, curriculum genero-ikuspegitik era integralean lantzeko irakasleentzako jarraibideak xertatzea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera, Emakunderen Euskara Normalizatzeko Plana onartu du, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra gauzatzea xede, bai eta 2014ko Kudeaketa Plana landu eta gauzatu ere.

Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioarekin batera, zientziaren alorrean fundazio horrek aplikatu ditzakeen neurriak zehaztea helburu izandako jardunaldian parte hartu du Emakundek, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko.

- Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin elkarlanean aritu da, Eusko Jaurlaritzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egiteko proposamen bat egiteko. Beste alde batetik, Saileko Berdintasun Unitatearekin elkarlanean aritu da, Jakinako emakumeen eta gizonen berdintasunerako alorra osatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren kudeaketaren kalitatea hobetzeko Aurrerabide proiektuaren ezarpenean esku hartu du, Eusko Jaurlaritzak onartutako Kudeaketa Publiko Aurreratuko Ereduaren ezarpenaren bidez. Eredu hori ekarpenak egin dizkio genero-ikuspegia baliatuta, bai eta Egiten Ikasi prestakuntza-ekintza prozesuan parte hartu ere, zeinean erakundeko zuzendaritza eta zerbitzu-buruak inplikatu diren.

Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarearen online lankidetzaren plataforma abiarazten eta mantentzen parte hartu du.

- Ogasun eta Finantza Sailarekin batera, lan-prozesu bat diseinatzen aritu da, genero-ikuspegidun aurrekontuak era integralean garatzea ahalbidetuko duena; sailarteko prozesua izateko aukera aztertzen ari dira, eta genero-aurrekontuen alorreko adituek ere elkarlanean jardun dute. Zentzu horretan, lan-metodologia bat definitu edo garatu nahi da, genero-analisia aurrekontu-prozesuaren maila guztietan txertatu ahal izateko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 eta 14. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat.

- Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzarekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu da, egitura-funtsen esparruan (ikus «Europako erakundeak eta programak», 2.1.3 atalean).
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin, lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmen bat sinatu du Munduko Landagunea Elkartearekin, Familia Nekazaritzaren Nazioarteko Urtearen esparruan.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin batera, lan-saio batean parte hartu zuen Emakundek Euskadiren Madrilgo Delegazioan. Hainbat herrialdetako enbaxadetako ordezkariak izan ziren, eta bertan, erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunerako EAEko politiken alderdirik nabarmenenak eskematikoki azaldu zituen, bai eta adierazi ere erakundearentzat bereziki interesgarriak diren esparruak, beste herrialde batzuetako esperientziak ezagutzea xede, erakundearen proiektuak garatzeko erreferentzia edo laguntza moduan baliagarriak izan daitezkeen heinean.
- KZguneak-ekin lankidetzat, emakume elkarlanean IKTen arloko “Emakundeak Sarean” prestakuntza programan genero-ikuspegia bultzatu eta txertatzeko.



Osalan



Bide-segurtasuna eta generoa

Sailtako legegintzaldi-planei buruzko txostenak

Emakunde sortzeko legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Emakundek EAEko berdintasun-politiketarako jarraibide orokorrak jasotzen dituen plan orokor bat egin behar du, legegintzaldi bakoitzaren hasieran. Lege horrek berak agintzen duenari jarraituz, sail, erakunde autonomiadun, foru aldundi eta udal guztiek beren planak egin behar dituzte, adierazitako plan orokor horretan xedatutako jarraibideen arabera.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzako sailtako eta foru- eta toki-administrazioetako berdintasun-planen txostena egin behar du Emakundek, plan horien edukiak Jaurlaritzaren plan orokorreko esku-hartze ildoetara eta jarraibideetara egokitzen diren edo ez ikusteko. Aurten Eusko Jaurlaritzak osatzen duten bederatzi sailtako legegintzaldi-planei buruzko txostenak egin dira.



Plan eta programa sektoriale buruzko txostenak

Politika orokorretan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko beste mekanismo bat Eusko Jaurlaritzako Sailek bultzatutako eta garatutako plan sektorial batzuei eta besteei dagokienez aholkua ematea eta ekarpenak, txostenak edo lan-bilerak egitea da. 2014an plan hauetan lagundu da, edota haiei buruzko txostenak egin dira:

- III. Gazte Plana 2020: 2014ko Jarraipen Txostena eta 2015eko Urteko Plana.

Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa

Genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko oinarritzko neurrietako bat da, eta hala dago ezarrita Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean. Lege horren Zortzigarren Xedapen Gehigarrian betetze aldera, Gobernu Kontseiluak onesten ditu ebaluazio hori egiteko gidalerroak. Gaur egun, 2012ko abuztuan onetsitako gidalerroak daude indarrean.

Emakundek 2007an sailek generoaren araberako eraginaren txostenak ongi egin zituztela egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko hasi zuen lanari dagokionez, 82 espediente jaso eta aztertu ditu eta 34 ofizio salbuetsi eta administrazio-arauen eta -egintzen 48 proiekturi buruzko egiaztapen-txostenak egin ditu Emakundek 2014an. Hurrengo taulan ikus daitezke horien xehetasunak:

2007-2014 DATUAK

	LEGEAK	DEKRETUAK	AGINDUAK	EBAZPENAK	Guztira
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
2010	9	36	29	1	75
2011	18	54	14	1	87
2012	11	67	15	3	96
2013	4	43	9	0	56
2014	14	37	30	1	82
Guztira	84	357	195	13	649

Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarea

Sarea sortzeko helburuarekin 2012az geroztik garatutako aurretiazko lanen ostean, 2014an martxan jarri da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarea. Apirilaren 25ean, 25 erakunde kide dituen sare hori eratu eta aurkezteko jardunaldia antolatu zen. Helburuak eta bertan parte hartzeko modua azaldu ez ezik, erakundeetan diagnostikoak eta planak egiteko balio duten tresnen eta gakoien berri eman zen. Era berean, lankidetzeta-plataforma bat (share point) martxan jarri da, eta lan-saio bat aurrera eraman da, berau aurkezteko, erabiltzen trebatzeko eta ahalbidetzen dituen lankidetzeta-moduak ikasteko. Erakundeek eskatuta noiz edo noiz emandako aholkularitzaaz aparte, berdintasunaren inguruan prestatzeko eta lan egiteko hirugarren jardunaldi bat antolatu da, erakunde arinak izateko funtsezko ezaugarria den aldetik. Bertan erakundeen esku jarri zen tresnaren bidez, aurrera eramaten ari diren ekintzen berri eman zioten elkarri, eta berdintasun-politiken eta beroriek erakundearen jardueran txertatzeko moduaren inguruko lehenengo gogoeta estrategikoa egin zuten.



Berdintasunaren
aldeko erakunde
publikoen sarea

2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Erakunde arteko Batzordea arautzen duen Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera egokia den Lantalde Teknikoak, aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez, Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematen dizkie, autonomia-erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko zereginean.

Emakundek sustatu eta koordinatzen duen Erakunde arteko Lantalde Teknikoak bilera bat egin du, ondoko gai hauexek lantze aldera:

- Genero-berdintasuna sustatzeko goi-mailako teknikarien titulazioaren araudia.
- Lantalde Teknikoetan egindako lana.
- Berdintzune web-orrialdea.

Halaber, Erakunde arteko Batzorde horren esparruan, Emakundek Lantalde Tekniko (LT) hauek bultzatu eta koordinatu ditu, 2011n sortu zirenetik:

- Sektore publikoaren hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak. LT horren barruan kontratazioan berdintasuna ezartzeko enpresa eta erakunde pribatuentzako gida bat egin da, administrazio publikoei batik bat zuzendutako materialen osagarri gisa. Horretaz aparte, gai horrekin lotuta etorkizunean landu beharreko alderdiak ere lehenetsi dira 2014an.

- Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egin eta aplikatzeko irizpideak. EAEko hainbat erakundek, foru-aldundiek, EUDELek eta Emakundek adostutakoaren arabera, lan-prozesu bati hasiera emango diote, EAEko udaletan generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidalerroak edota gomendioak osatu eta garatzeko helburuarekin.

Bestalde, informazioa eta aholkularitza eman zaie EAEko udalei eta foru-aldundiei, eta, guztira, 376 kontsultari erantzun zaie.

Erakunde arteko Batzordean egindako lanaz gain, udalekin lan egiteko eta haiei laguntzeko beste jardun-ildo batzuk ditu Emakundek:

Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen, eta 2005ean EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartarekin sinatutako lankidetzak hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Hitzarmen horren bidez, Emakundek hitzeman zuen sarea dinamizatuko zuen berdintasun-eragile bat kontratatuzko finantzaketan parte hartuko zuela eta EUDELek hitzeman zuen sare hori sortu eta kudeatuko zuela, bai eta hura garatzeko beharrezko jarduerak gauzatuko zituela ere.

Sareak organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELeko eta Emakundeko ordezkariak osatzen dutena. Honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jardura gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentzia izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura: Berdinsarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiz osatuta dago.
- Batzar Teknikoa. Udalari bakoitzak izendatutako berdintasun-teknikariak, Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariak eta Emakundeko teknikari batek osatzen dute.

Hauek izan dira, zehazki, 2014an Emakundek egindako ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko EUDELekin sinatutako hitzarmena berritu du.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariekin eta teknikariekin lan egin du.

Informazioa eta aholkularitza eman zaie EAEko udalei eta foru-aldundiei eta, guztira, 376 kontsultari erantzun zaie



Beldurbarik Berdinsarea

- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu du, eta hartu diren erabakien jarraipena egin du.
- Berdinsarearen batzar teknikoetan parte hartu du, eta hartutako erabakien jarraipena egin du.
- Emakume eta Gizonen berdintasunaren arloan ordenantzak egiteko Batzordean parte hartu du. Batzorde hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantza bat egiteko prozesuan interesa duten udalerriek osatzen dute.
- Virginia Woolf Basqueskola emakume politikarientzako eskolaren 2014ko programazioak barne hartzen dituen jardueren garapenaren jarraipena egin du.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren Batzordearen lan-saioetan parte hartu du.
- Udalerrietako berdintasun agenteen lidergoa indartzeko prestakuntza-ekintza programan parte hartu du.
- Azaroaren 25eko kanpainaren barruan (Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna), Beldur Barik programa kudeatu eta koordinatu du, eta programa hori diseinatzeko, ezartzeko eta jarraipena egiteko lan-batzordeetan eta -saioetan parte hartu du. Beldur Barik Topaketan eta 2014ko lehiaketaren sari banaketan parte hartu du.

Berdinbidean - Biztanle gutxi duten udalerriak berdintasunerako politiketan dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzua

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, jende ugari bizi den udalerrietan, batez ere. Nolanahi ere, sare horretan sartzeko beharrezkoa denez zenbait baldintza betetzea langileen kontratazioari, berdintasun-planak egiteari eta berdintasun-politiketarako aurrekontu jakin bat erabiltzeari dagokionez, biztanle gutxiko udalerri gehienentzat zaila da Berdinsarean sartzea.

Ikusita udalerri txikiek arazoak dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean aurrera egiteko planak, programak eta ekintzak lantzeko, Berdinbidean programa sortzen da hiru lurralde historikoetako udalerri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta horien inguruan aholkatzeko zerbitzuak martxan jarri ahal izateko. Hauek dira zerbitzu horien helburuetako batzuk:

- Udal txikiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak abian jartzeko aukera ahalbidetzea, Berdinsarearekin bat datorren estrategia bat medio, epe ertainera aipatu sarean sartzeko aukera izan dezaten.
- Udalerrietan, mankomunitateetan, eskualdeetan edo kuadrilletan elkarrengana hurbil daitezen, esperientziak truka ditzaten, koordinatu daitezkeen eta elkarrekin jarduerak egin ditzaten erraztea.

Jarduera hauek egiten dira, adierazitako helburuak betetzeko:

- Laguntza teknikoa ematen zaie udalerrri txikiei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko programak eta ekintzak egin ditzaten.
- Topaketak eta bilerak antolatu eta koordinatzen dira mankomunitate, eskualde eta kuadrilletan, udalerrri txikietan esku hartzeko estrategiak ezartzeko, esperientziak trukatzeko eta egindako lanaren jarraipena egiteko. Horren guztiaren xedea da parte hartzen duten udalerrrien arteko sinergiak sortu edo indartzea.

2011. urtean, eta dagokion hitzarmena sinatuz, Emakundek hitzeman zuen udalerrri horietan dinamizazio eta aholkularitza prozesuan egiten diren jarduerak egiteko finantzaketan parte hartuko zuela. 2012an hitzarmen bat sinatu zen, konpromisoa berritzeko, eta 2013. urtean isilbidez luzatu zen. 2014. urtean, hitzarmen berri bat izenpetu da, eguneratua. Ondorioz, Emakundek hartzen diren erabakien jarraipena egiteko bileretan parte hartzen du.

Udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebalua ditzaten

Diru-laguntzen deialdiak dira Emakundek udalerriei laguntza teknikoa emateko erabiltzen duen beste tresna bat. Tokiko erakundeei ematen zaizkie diru-laguntza horiek, emakumeek eta gzonek udalerrietan bizi duten egoeraren diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EAEko Esparru Planaren¹ ildo nagusiei jarraituz. 2013an deialdia egin zen, eta gauzatzeko epea 2014ko urrira arte luzatu da. Deialdian erabili den diru kopurua 638.400 euro izan da, 255.360 euro 2013ko ekitaldian eta 383.040 euro 2014ko ekitaldian. Gainera, udalerrri txikiek eta berdintasun-politikak garatzen ibilbide laburrena duten udalerrriek diru-laguntza horiek eskuratu ahal izateko estrategiak garatu dira, eta prozesu sisGaiatik bat abiarazi da horretarako.

47 udalerriri eta 7 mankomunitate, kuadrilla eta/edo talderi dagozkien 58 proiektu diruz lagundu dira. 11 udalek egin dute, lehenengo aldiz, berdintasunerako diagnostiko eta/edo plan bat. Gainerako proiektuak diagnostiko berriak, berdintasun-plan berriak eta haien ebaluazioak egiteko edo diagnostiko eta plan sektorialak garatzeko dira. Haietatik 8 udalek egin dituzte emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko protokoloak.

1. Gaur egun, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.

47 udalerriri eta 7
mankomunitate, kuadrilla eta/
edo talderi dagozkien
58 proiektu diruz
lagundu dira

Era berean, udal, kuadrilla edota elkarteei zuzendutako deialdi berri bat egin da, 2015eko ekitaldian zehar diagnostikoak, planak edota ebaluazioak garatu ditzaten. Guztira 360.000 euro bideratu dira horretara.

Berdintasun-planak, txostenak eta aholkularitza

Emakunde sortzeko legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Emakundek EAEko berdintasun-politiketarako jarraibide orokorrak jasotzen dituen plan orokor bat egin behar du, legegintzaldi bakoitzaren hasieran. Lege horrek berak agintzen duenari jarraituz, sail, erakunde autonomiadun, foru aldundi eta udal guztiek beren planak egin behar dituzte, adierazitako plan orokor horretan xedatutako jarraibideen arabera.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzako sailtako eta foru- eta toki-administrazioetako berdintasun-planen txostena egin behar du Emakundek, plan horien edukiak Jaurlaritzaren plan orokorreko esku-hartze ildoetara eta jarraibideetara egokitzen diren edo ez ikusteko.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezten: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea, alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea, eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten emakumeen eta gizonen berdintasunerako 20 udal-plani buruzko txostenak egin dira.

([1. eranskina ikusi](#))

Foru- eta toki-administrazioen esparruan beste lankidetzak hauek dira aipatzekoak: Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkeriaren Behatokia parte hartzea; Irun eta Hondarribiko alardeei buruzko erakunde arteko espazioan parte hartzea (Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak sustatutakoa); etxeko lanetan diharduten emakumeen egoera eta baldintzei buruzko adituen taldean parte hartzea (Immigrazio Gaietarako Bilboko Udalaren Kontseiluak zuzentzen du talde hori).

Aurten emakumeen
eta gizonen
berdintasunerako 20
udal-plani buruzko txostenak
egin dira

2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazio eta lankidetzatza

Alde batetik, Administrazio Orokorrearekiko eta, bestetik, toki- eta foru-administrazioekiko harremanaz gain, Emakundek egitura egonkorra dauzka gure gizartea osatzen duten beste instituzio eta erakunde batzuekin koordinatzeko eta parte hartzeko.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2009ko otsailaren 3an, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko Erakunde arteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeke erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakunde arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jardura-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, jarduteko jarraibide eta irizpide batzuk ezarri behar dira, profesionalek jarraitu beharrekoak, bakoitzari dagokion eremuan bai eta erakunde arteko harremanetan ere. Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Herri Administrazio eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politika, eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Batzordeak laguntza ematen dion Erakunde arteko Lantalde Tekniko iraunkorra –ELT– du, bai eta aldi baterako beste lantalde batzuk ere, batzordeak zein ELTak hauGaiandako beharren araberrako gaiak lantzen dituztenak. Gaur egun, Harrera Baliabideei buruzko Lantaldea –HBL– eta Informazio SisGaiaren Lantaldea –ISL– daude martxan.

Ekainaren 27an, Jarraipen Batzordeak bilera bat antolatu zuen Mungian, genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakume baten kasuaren kudeaketa eta jarraipenari buruzko informazioa emateko. Saio horretan, ELT, HBL eta ISL taldeen 2014ko lehentasunak eta lan-proposamenak onartu ziren, eta ELTk egindako lanak aurkeztu ziren, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen seme-alabei eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntzari buruzkoak. Horretaz aparte, ISLk egindako irismen-adierazleen proposamena aurkeztu zen, eta Emakunde emakumeen genitalen mutilazioari buruz egiten ari den lanaren inguruko informazioa eman zen.



II. Akordioaren jarraipen batzordea



Zehazki, ELTk sei bilera antolatu ditu, eta aurrerapen hauexek egin ditu:

- A.- Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntzari dagokionez, Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arretan parte hartzen duten talde profesionalentzako prestakuntza-eredua dokumentua adostu da, diagnostikoa, plangintza didaktikoa eta ezarpen-estrategia barne hartzen dituena.
- B.- Aholkularitza juridikoa: Gipuzkoako Foru Aldundiak ELTri egindako aholkularitza juridikoko bi eskaerari erantzun zaie.
- C.- Adingabeak: EAEen emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen seme-alabentzako arretaren diagnostikoa aurkeztu eta eztabaidatu da.

HBLk bilera bat egin du, eta bertan hainbat gai planteatu dira; esaterako, azken bileran ebazteke utzitako gai honi berriz heltzea: emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean, EAEko deribazio-protokoloa egiteko eta arreta-baliabideen egungo egoera ebaluatzeko egokitasuna. Saio horretan, hurrengo urtean taldeak landu zitzakeen proposamenak egin ziren, eta harik eta zerbitzu-zorroari buruzko dekretua onartu arte, deribazio-protokoloa aurrera ez eramatea adostu zen.

Gainera, ikusita datu pertsonalen babesaren inguruan hainbat erakundek agertutako interesa, bai eta babes horren eragina ere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua xedatutakoa bete ahal izateko («etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diren kasuetan, erantzuna koordinatua eta eraginkorra izango da, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatuko zaie»), Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalak tratatzeko gida operatiboa osatu da. Gida hori ELTri eta udaletako berdintasun-teknikari eta gizarte-langileei aurkeztu zaie.

Informazio Sistemen Lantaldeak lanean jarraitu du, Erakundearen arteko II. Akordioan inplikaturikotako EAEko erakunde guztientzako informazio-bilketako sisGaia homogenea ezartzeko helburuarekin. Hala, irismen-adierazleak definitu ditu, eta haien behin betiko kategoriak adostu. Era berean, prozesuei eta zerbitzuen ezaugarriei buruzko informazioa biltzeko galdetegi-proposamenak egin dira, 2015ean aztertu eta adostuko direnak.

Udalei prozesu horren berri emate aldera, berdintasun-teknikariz eta gizarte-langilez osatutako lantalde bat eratu da EUDELan laguntzaz, azaltzeko, batetik, datuak homogeneizatzeko prozesua, eta, bestetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin izandako harremana, Gizartenet gizarte-diagnostikorako tresna eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu-bilketarako horrek eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko helburuarekin.

Beste alde batetik, Emakunde buruzagitzak eta koordinazio-lanetan aritu da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jardura-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, Erakundeak protokoloak buruzko txostenak egiten ditu. Hala, toki administrazioek erreferentziarako eta segurtasunerako esparru bat izango dute, baldin eta toki administrazioek hala eskatzen badute. Aurten Aguraingo Kuadrillaren protokoloaren proposamenari buruzko txostena egin da.

2013an hasi eta 2014an garatzen jarraitu den beste lan-prozesu bat emakumeen genitalen mutilazioa –EGM– orokorrean aztertu eta lantzeari buruzkoa izan da, mutilazio hori emakumeen aurkako indarkeria-mota bat den aldetik. WASSU-UAB erakundearekin laguntzaz aurrera eramaten ari da prozesua, eta 2014an EGMari buruzko Euskadiko diagnostikoa landu eta aurkeztu da.

Emakunderen Aholku Batzordea - Emakume-elkarteen partaidetza-organoa

Emakumeek beraiek berdintasun-politiken diseinuan parte hartzea orokorrean aintzat hartuta dagoen beharrezkoa da. Horregatik, Emakunderen lehentasunezko jarduerak-ardatzetako bat emakumeen elkarten sarea sustatzea eta sendotzea da. Horretarako, haiek esku-hartze publikoko esparru guztietan berdintasun-politiken diseinuan eta erabaki-hartzean parte hartzea sustatzen du. Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukeko mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza da Emakundeko Aholku Batzordea, eta horren guztiaren emaitza da, halaber, elkarteek gero eta gehiago laguntzen dutela gizartea sentsibilizatzen eta aldatzen, berdintasun handiagoa lortzeko.

2014. urtean, Aholku Batzordeak Euskadiko elkartegintzarekin harremanetan jartzeko eta komunikatzeko organo gisa betetzen dituen ohiko funtzioekin jarraitu du, eta berau sendotu da, lurraldeetako aholku-azpibatzaileen esparruan egindako harreman soziopolitikorako prestakuntza- eta laguntza-saioken bidez. Emakundek, bestalde, Aholku Batzordeak EAEko administrazio publikoaren maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan ordezkari izatea sustatzen jarraitu du. Horrez gain, udalerrietan, eskualdeetan eta lurralde historikoetan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatu du.

Emakundek emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatzen, taxutzen eta sendotzeko lan egiten du. Dinamika horietako batzuk Jaurlaritzako beste Sail batzuekin lankidetzan egin dira. Esparru horretan elkarteekin lan egiten dugu lurralde-eremuko bileren bitartez. Bilera horien helburuak sareak sendotzea, modu egonkorrean koordinatzea eta denon intereseko ekimen eta proiektuak adostea dira.

Emakundeko Aholku Batzordeko elkarte-ordezkariek lurralde historiko bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarrekin lan egitearen kultura sortzeko. Horri esker, ekintza zehatzak martxan jarri dira, eta etorkizunerako konpromisoak zehaztu dira, emakumeek parte-hartze aktiboa izateko elkarte-sarearen bidez. 2014an zehar hamar bilera baino gehiago egin dira hiru lurraldeetan, Aholku Batzordearen harreman soziopolitikoak indartzeko.



Emakunderen
aholku
batzordea



Begira/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordea

Begira 1998an sortu zen Emakunderen barruan, publizitatearen arloan emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko helburuz. Komunikabideek gizartean, errealitatearen pertzepzioan eta balioen eraikitzean duten influentzia nabarmena kontuan izanik, eta 4/2005 Legeak ezarritakoa betez, Emakundek komunikabideen arloa ere batzordearen barnean jorratzea erabaki zuen. Ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuaren bidez Batzorde berria arautu zen.

Batzordearen helburuak hauek dira, batik bat: komunikabideetan pertsonen –sexu batekoak edo bestekoak izateagatik– giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela eta objektu sexual soilak direla adierazi ez dadin bermatzea, eta emakumeenganako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duen edukirik egon ez dadin bermatzea. Bestalde, irudi berdinazalea, orekatua, plurala eta edertasun-kanon eta sexu-estereotiporik gabea sustatu behar dute, eta emakumeek bizitzaren eremuetan betetzen dituzten funtzioetan duten partaidetza aktiboa berma dezatela, bereziki kontuan hartuta haur eta gazteentzako programazioaren edukia.

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako kexak jasoko ditu, eta, prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005eko Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeko.

Emakunderi atxikitako Batzorde honetako kideak hauek izango dira: Emakunde bera, Idazkari Nagusia buru dela, Eusko Jaurlaritzako Publizitate Institutuzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarteko, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakundeko Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarteko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatzen dute batzordea.



Begira batzordea

Begira jardunaldia



2014an, Begira batzordeak aurreikusitako bi ohiko bilerak egin zituen. Horietan, ekintza-planean jasotako jarduketak proposatu, egiaztatu eta onartu ziren. Zehazki, lehenengo ohiko bilera maiatzaren 29an egin zen, eta bertan, abian ziren kexa-espedienteak egiaztatzeaz gainera, Publizitate sexistari buruzko azterlan koiunturala, EAEko hedabide eta publizitate-bideetako 2013-2014ko joko eta jostailuen Gabonetako kanpainan dokumentua aurkeztu zen. Era berean, 2014an egin beharreko azterlanen proposamena berrikusi zen, Begiraren urteko memoriari ekarpenak egin zitzaizkion, eta beste gai batzuk jorratu ziren, hala nola Begiraren markaren proposamen grafiko eta Begiraren Slack lankidetzeta-plataforma.

Beste alde batetik, bigarren ohiko bilera urriaren 27an egin zen. Horretan, genero-ikuspegidun publizitatearen eta komunikazioaren inguruan eskuragarri dauden azterlanak eta materialak berrikusi ziren, Europako Parlamenturako 2014ko hauteskunde-kanpainaren EAEko publizitate- eta informazio-tratamenduari buruzko azterlan koiunturala, genero-ikuspegian oinarritua lana aurkeztu zen, publizitate eta komunikazio ez-sexistari buruzko kode deontologikoa egiteko lan-prozesua, bere dinamizazioa eta ezarpena jorratu ziren, eta abian diren kexa-espedienteak egiaztatu ziren.

Lan-bilerez gainera, batzordeko kideen arteko lankidetzeta etengabea izan da online plataforma bati eta lantalde espezifikoari esker, jarduketa zehatz batzuk egiaztatzea xede izan dutenak.

Ildo horretan, hona hemen aztergai dugun urtean aurrera eramandako jarduketa garrantzitsuenak:

- Begira zer den azaltzen duen liburuxka elebiduna egitea, argitaratzea eta hedatzea (paperean zein formatu digitalean). Helburua da modu sinplean ezagutzera ematea batzordearen beraren izaera eta herritarrentzako erreferente izateko xedea, genero-ikuspegian oinarritutako publizitate eta komunikazioarekin lotutako gaietan.
- Publizitatean sexismoa identifikatzeko dekalogoia egitea eta hedatzea formatu digitalean, bai eta kexak jasotzeko inprimaki bat ere. Dekalogoia zein inprimakia egiteko, Begira batzordeko kide diren entitate eta adituekin zein EAEko emakumeen elkarteekin lankidetzan aritu da Emakunde. Helburua da publizitatearen alorrean erabilera sexista posibleak hauGaian eta identifikatzeko tresna baliagarria bihurtzea.
- Herritarren 35 kexa jaso eta izapidetu dira (aurreko urtearekin konparatuta ia % 80 igo da proportzioa), eta aholkularitzako eta txostenak egiteko eginkizunei eutsi zaie.
- 2013-2014ko Gabonetako joko eta jostailuen kanpainako publizitate sexistari buruzko azterlana aurkeztu da. Publizitate sexistari buruzko azterlan koiunturala, EAEko hedabide eta publizitate-bideetako 2013-2014ko joko eta jostailuen Gabonetako kanpainan dokumentuaren helburu nagusia da Euskadin hedatutako eta argitaratutako joko- eta jostailu-iragarkiek zenbaterainoko sexismoa adierazten duten neurtzeko tresna bat definitzea eta baliozkotzea, eta iragarkiak biltzeko, aztertzeko eta ustatzeko tresna estatistiko fidagarri bat ezartzea, etorkizuneko azterlanen oinarri izango den adierazle-, kategoria- eta aldagai-sisGaia eraikitzea bideratuko duena. Azterlana hedatzen laguntzeko, laburpen-bideo bat egin da euskaraz eta gaztelaniaz. Emakunderen webgunean argitaratuta dago, Begiraren atalean.

Aldi berean, azterlan horretatik abiatuta hainbat gomendio egin eta zenbait jarraibide zabaldu dira, jokoaren bidez Euskadiko haurrei helarazi ahal izateko jostailuak aukeratzeko orduan, hezkuntza-alderdia aktiboki sustatu behar dela aisialdikoaren ordeztu, partaidetzarena behaketa hutsaren ordeztu, bai eta gure gizartean, kontsumo arduratsua eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko balioak bultzatu behar direla ere, era horretan, berdintasunezko bizikidetzak lortu ahal izateko hurrengo belaunaldientzat.

- Europako Parlamenturako hauteskunde kanpainaren publizitate- eta informazio-tratamenduari buruzko azterlan bat aurrera eramane eta aurkeztu da. Europako Parlamenturako 2014ko hauteskunde kanpainaren publizitate- eta informazio-tratamenduari buruzko azterlan koiunturala, genero-ikuspegian oinarritua izenekoak helburu nagusitzat ditu genero-ikuspegitik aztertzea ea zer tratamendu ematen dioten hedabideek hauteskunde-prozesuei, eta laguntzea —hedabideei— jabetu daitezkeen zenbaterainoko garrantzia duen, aldaketa sozialerako tresna gisa, zabalkunde mediatiko parekoa deiturikoak. Ezarritako xedeak erdiesteko, bi tresna sortu dira: horien bidez, ziurtatuta geratzen da bildutako informazioa baliagarria, objektiboa eta egiaztagarria izango dela errealitatea deskribatu eta ulertu ahal izateko, eta, gainera, azterlana errepikatze aukera emango dute, bilakaerari lotutako serie historikoak osatzeko. Osagarri gisa, dokumentu-erreferentzien dosier bat txertatu da, eta laburpen exekutiboa egin da, azterlana hedatzen laguntzeko.
- Komunikabideei eta publizitateari buruz genero-ikuspegiak lehendik egindako azterlanen meta-analisi bat egin eta aurkeztu da. Genero-ikuspegiak publizitate eta komunikazioaren inguruan erabilgarri dauden azterlan eta materialak berrikustea eta laburtzea izenekoan dokumentu-ikerketak bat aurrera eramane da, genero-ikuspegiak publizitatearen eta komunikazioaren azterketarekin lotuta azken urteotan egindako azterlanak, txostenak eta materialak bildu, sailkatu eta analizatzeko. Horregatik, azterlanaren xedea kualitatiboa eta kuantitatiboa izan da. 2000-2013 urteen arteko argitalpenak, txostenak eta jardunaldiak jasotzen dira, EAEkoak (174 erregistro), Espainiakoak (700) eta nazioartekoak (225). Erregistro horiek guztiek komunikabideak eta publizitateak beren genero-erakuntzetan adierazten dituzten irudikapenak aztertzen dituzte.
- Begira identifikatzeko irudi korporatiboa diseinatu eta ezarri da, eta batzorde horren jarduketak berri emateko atal bat sortu da Emakunderen webgunean. Zehazki, aurkeztutako proposamenen artean bat aukeratu, eta ostean, dagokion estilo liburuak egin da, berau garatu eta ezarri ahal izateko. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren jabetzak marka gisa erregistratzeko prozesua aurrera eramane da. Ondoren, hainbat eduki landu eta Begirak Emakunderen webgunearen barruan duen atalean argitaratu dira.
- Udako ikastaro bat antolatu da EHUrekin lankidetzan, gizarte-aldaketa, genero eta komunikabideen inguruan ([ikus 2.3.2. atala](#)).
- Bereziki gazteei zuzendutako mugikorren aplikazio bat diseinatu da, Begiraren jarduketa hedatzeko eta kexen bilketa errazteko gailu bidez. BEGIRA-app deitutakoaren bidez, publizitate sexistaren kasu posibleak hauetako ahalko dira, eta publizitate sexistaren inguruko kexak egin eta bidali, edozein une eta tokitan. Aplikazioa elebiduna da, eta honako hauek daude: inprimaki bat, kexa guztiak jasotzeko; dekalogo bat, zer sexismo-mota antzeman den zehazteko, eta informazioa emateko agiri bat, Begira Batzordea zer den eta zertarako balio duen azaltzeko. BEGIRA-app gailu mugikorretarako aplikazio bat da, doakoa; Android eta IOS-en lor dezakezu.

Begira - app. Bereziki gazteei zuzendutako mugikorren aplikazio bat diseinatu da, Begiraren jarduketa hedatzeko eta kexen bilketa errazteko gailu bidez

- Komunikabideekin eta publizitate-agentziekin batera lankidetzan bati hasiera eman zaio, kode deontologiko bat egiteko. Prozesu hori, halaber, komunikabide partaideentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-eremu ere bihurtu nahi da. 2015. urtean ere aurrera eramango da aipatu prozesua. Hona hemen bere erronka nagusiak:
 - Genero-ikuspegidun komunikaziorako prozesu aitzindari eta berritzaile horretan inplikaturik dauden eta horrekiko interesa duten eragile guztiak barne hartzea.
 - Kode deontologiko bat egitea elkarrekin, informazio eta publizitate ez-sexista tratatzeko erreferentzia- edota kontsulta-dokumentu gisa balioko duena.
 - Komunikabide, publizitate-agentzia eta bestelako intereseko eragileetako zuzendaritza kideak eta langileak sentsibilizatzea eta prestatzea.
 - Berdintasuneko komunikaziorantz egitea ahalbidetuko duen komunikazio- eta hedapen-estrategia diseinatzea eta gauzatzea.
 - Genero-ikuspegian oinarritutako komunikazioaren ezarpena lagunduko duten tresnak diseinatzea eta bultzatzea (estilo-liburuak, dekalogoak...).
 - Komunikazio- eta publizitate-jardueretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatzea erraztea, gidalerro argi eta sinpleen bitartez.

Urriaren 21ean lehenengo bilera egin zen. Bertan, komunikabide eta publizitate-agentzia nagusietako zuzendaritza-kideak elkartu zituzten, ekimena aurkeztu eta babesak lortze aldera. Horren ostean, bilera teknikoetan parte hartuko duten langileak izendatu ziren; hartara bi talde osatu ziren, kazetaritzakoa eta publizitatekoa.

Lehenengo bilera teknikoa abenduaren 10ean izan zen, eta bi taldeotan konprometitutako agenteen % 75 bertaratu ziren. Deialdi tekniko bateratu horrek aurreikusitako helburuak bete zituen:

- Helburuak eta lan-plangintza globala aurkeztea.
- Diagnostiko eta analisi partekatua - proiektuaren ikuspegia.
- Beharrak lehenestea - lan-ildoak.
- Kode deontologikoaren eredia diseinatzea - tresnak.
- Kodearen eduki orokorren lehenengo aurrerapena.

Lehenengo bilera horretan, halaber, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza bat egin zen, kode deontologikoa egiteko prozesua bera planifikatu bezalaxe. Horretarako, Elvira Altés Rufias irakaslearen laguntza jaso zen.

- Begiraren 2013ko jarduketaren memoria egin eta onartu da.

Beste lankidetzak batzuk: unibertsitateak, berdintasun erakundeak, nazioarteko instituzioak

Unibertsitateak: Aurreko urteetan egin izan den bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) antolatutako Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua profesionalak gaitzea da, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak horren jardura batzuk izan dira diru-laguntza izendun bat ematea, irakaskuntzan parte hartzea eta Emakunden praktikak egiteko aukera ematea; zehazki, pertsona batek Berdintasunerako Defentsa Erakundean egin ditu praktikak, eta beste batek, Gizonduz programan.

Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofiziala (Deustuko Unibertsitateak antolatua) garatzen ere lagundu da, ikasleei bekak emanez. Unibertsitate horrekin beste modu batean ere lankidetzan aritu da Emakunde: 2014an egindako Emakume Teknologoaren Ada Byron Sariaren deialdia eta beste jarduera osagarri batzuk babestu ditu. Ekimen horren helburuak hauek dira: teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortzea eta erakustea. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta ekarpen handiak egin emakumeak hainbat esparrutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur eguneko neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.

Estatuko berdintasun-erakundeak: Hezkuntzaren arloan, Emakundek INTERCAMBIA Sarean parte hartzen jarraitu du. Sare hori Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak bultzatu dute, eta berdintasun-arloko politikak sustatzen dituzten erakundeetako pertsonak eta, orobat, autonomia-erkidego guztietako hezkuntza-sailekoek eratzen dute.

EBko erakundeak eta programak: Emakundeko zuzendaria Genero Berdintasunaren Europako Institutuko (EIGE) zuzendariarekin bildu zen Lituaniar, bi entitateon arteko elkarlanean sakontzeko, batik bat, Berdintasuneko Europako Indizearen EAEko ezarpenari begira. Era berean, EIGEk gonbidapena egin zion Emakunderi, hark antolatutako gizonak eta emakumeak eta gizonen berdintasunari buruzko mintegian parte hartzeko. Ekintza horren helburua Europar jarraitu beharreko estrategia eta ezarri beharreko lehentasunen inguruko gogoeta egitea eta ekarpenak jasotzea zen, berdintasunaren aldeko gizonen inplikazio-lanari dagokionez.

2014an, era berean, Eurogender online plataformaren bidez eta Europako hainbat herrialdeetako entitate eta adituekin batera, EIGEn emakumeak eta gizonen berdintasunari buruzko datu-basearen funtzionaltasun eta diseinuaren inguruko online jardunaldian parte hartu du Emakundek, aipatu erakundeak antolatu zuena. Beste alde batetik, EGEF eta EGF egiturazko funtsei dagokienez, Emakundek funts bien Jarraipen Batzordean parte hartzen jarraitu du. urteko txostenean ekarpenak egin ditu eta Batzordeen urteko bileretan egon da: 2007-2013 aldiko Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) Programa Eragilearen Jarraipen Batzordean eta 2007-2013rako Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF) Programa Eragilearen Jarraipen Batzordean.

Bi funts horien laguntzaz finantzaturako programak egiten dituzten erakundeak berdintasun-estrategiak indartzeko, lankidetzan jarraitu dugu Lanbiderekin (EGIFen Bitarteko Erakundea) eta Ekonomia Zuzendaritzarekin (EGEFen Bitarteko Erakundea). Lankidetzan horren barruan jarduera hauek egin dira:

- Lantalde Teknikoarekin batera lan-jardunaldi bat egin da egitura-funtzen berdintasunari buruz, Programa Operatiboen prestaketa zertan den jakinarazteko eta haietan genero-ikuspegia txertatu behar dela jakinarazteko.
- EGIFen eta EGEFen 2014-2020ko Programa Operatiboari buruzko berdintasun-irizpenak egin dira.

Halaber, zera nabarmendu behar da: Emakundek, 2007-2013 aldiko egitura-funtsetako Berdintasun Politiken Sareko kide den aldetik, Sarearen Osokoak egindako bederatzigarren bileran parte hartu zuen, baita Sarearen barruan sortutako lantaldeetan ere. Sare hori Emakumearen Institutuak eta EGIF eta EGEF funtsen agintari kudeatzaileek sustatzen dute.

Horretaz aparte, egitura-funtsetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko jardunaldi batean izan da Emakunde, Bruselan. Bertan, Standard on Gender Mainstreaming tresna aurkeztu da, 2014-2020 aldian Europako Gizarte Funtsean genero-ikuspegia sisGaiatikoki txertatzea bilatzen duena. Beste alde batetik, Akitaniako Kontseilu Nagusiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Komitearekin elkarlanean aritu da Emakunde.

Komite horrek eskatuta, lan-saio batean parte hartu zuen, zeinean eskualdeko emakumeen eta gizonen egoeraren inguruko diagnostikoa aztertu baitzen, lehenengo berdintasun-plana egiteko aurretiazko urrats gisa.

NBEko eta nazioarteko erakundeak

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jardura hauek egin dira: Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzako Zuzendaritzarekin eta Euskadiren New Yorkeko Ordezkaritzarekin lankidetzan, Emakundeko zenbait ordezkari hiri horretan antolatutako ekimen batean parte hartu zuten, hain zuzen ere, Nazio Batuen Erakundeko Emakumeen Izaera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordearen 58. bileran. Osoko bilkuretarantz gisa bertaratzeaz gainera, osagarri moduan antolatutako zenbait ekitalditan izan zen Emakume, esaterako, emakumeen elkartegintzaren eta emakume hautetsien arteko aliantzen inguruko batean, eta soldata-diskriminazioa hizpide izan zuen beste batean, Kanada eta Herbehereetako Gobernuak eta LANEk antolatu zutena. Hala, testuinguru horretan, ONU-Emakumeak gonbidatuta, hitzaldi bat eman zuen Emakundek, berdintasun-politiken finantzazioari buruzko mintegi batean.

Gainera, New Yorkeko egonaldia baliatuta, alde biko bilerak egin zituen ONU-Emakumeak erakundeko hainbat zerbitzuekin. Horietan, esperientziak partekatu ez ezik, etorkizunerako lankidetzaz-esparruak ere identifikatu zituzten. Era berean, Nazio Batuko Biztanleria Funtzarekin bildu zen, eta harremanak ezarri zituen Amerikako Estatuak Erakundearekin eta LANErekin.

Horretaz aparte, generoa aintzat hartzen duten plangintzen eta aurrekontuen sektore-esperientziei buruzko Munduko Mintegian parte hartzera gonbidatua izan zen Emakunde (Turinen antolatu zuten NBE-Emakumeak, LANEk eta Europako Batzordeak).



Lituania

Bruselas



ONU



Mintegiaren helburua mundu osoko gobernuen arteko ezagutza, esperientzia eta jardunbide egokien trukea erraztea zen, berdintasun-printzipioa kasuan kasuko ministerio edo sailtako plan eta aurrekontuetan txertatzea bilatuta, emakumeen egoera eta politika publikoen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko oinarritzko elementua den aldetik.

Gainera, bost kontinenteetako 25 pertsona eta erakunde aditurekin batera, Emakumeen aurkako Indarkeriari Gizarte Zerbitzuetatik Erantzuteari buruzko Munduko Kontsulta Teknikoan parte hartu zuen Emakundek (Mexikon antolatu zuten NBE-Emakumeak eta Nazio Batuen Biztanleria Funttsak). Programaren xede nagusia mundu-mailako adostasuna lortzea da, batetik, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta hari aurre egiteko oinarritzko elementu eta zerbitzuen inguruan, eta, bestetik, indarkeria hori jasaten duten emakume eta nesken beharrei modu koordinatu eta kalitatezkoan erantzuteko beharrezkoak diren gutxieneko estandarren inguruan.

Halaber, Espainiara egindako bisita aprobetxatuz, lankidetzan aritu da Emakunde Legean eta Praktikan Emakumea Ez Diskriminatzeko Nazio Batuen Lantaldearekin. Zehazki, talde horretako zenbait ordezkariarekin bildu zen Emakunde, eta EAEn emakumeek bizi duten diskriminazio-egoerari eta horri aurre egiteko garatutako ekintzei buruzko buruzko informazioa eta dokumentazioa eman zitzaizkien.

Bestalde, Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean izenpetutako lankidetzarako esparru-akordioaren jarraipena egin da. Emakundek bertan parte hartzen du, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna du lankidetzatza-eremuetako bat bezala.

Hirugarren sektoreko erakundeak: Emakunde hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean aritu da zenbait jarduketatan. Adibidez, 2014ko Zinema Ikusezinen Jaialdian (seigarren edizioa), Emakume Errealizatzailer Onenaren saria babestu du eta epaimahaikide izan da hautagaitzen balorazioan. Era berean, Bertsozale Elkartarekin lanean jardun du, bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko eta emakume bertsolarien ahalduntzea bultzatzeko, hartara prestakuntza-ekintzak antolatuta.



Turin



Mexico



2.2. Politika publikoen ebaluazioa

Berdintasun- eta genero-politiken ebaluazioa, indarreko legediak berdintasunaren arloan ezartzen duen eta nahitaez bete behar den agindua izateaz gain, kontu ematea xede duen jarraipen-mekanismoa da. Aldi berean, ikasteko eta hobetzeko tresna da. Horri esker, inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin ahal da, eta etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira. Alde horretatik, Emakundek 1991n ekin zion berdintasun-politikak ebaluatzeari, eta ibilbide hori ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez.

Berdintasun- eta genero-politiken ebaluazioa inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin ahal da, eta etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira

2014an, botere publikoek berdintasun-plana gauzatuz 2013an egindako jarduerari buruzko informazioa bildu eta aztertu da. Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren (2010-2013 aldikoa) ebaluazioa, EAEko botere publikoek egindako berdintasun-planaren garapen eta ezarpenaren jarraipena barne hartzen duena.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena, 2013. urteari buruz.

2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak

Emakunderen eguneroko lanean erakundearen nahiz erakunde osatzen duten arlo batzuen eta besteen eguneroko jardunean zeharkako eragina duten zerbitzuak eta lan-eremuak daude. Zeregin juridikoak, prestakuntzakoak, dokumentaziokoak eta ikerkuntzakoak dira. Ezinbestekoak dira Emakunderen arlo bakoitzak programatutako jarduerak egin ahal izateko.

2.3.1. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du –bereziki diru-laguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten–, eta arau juridikoak egiteko prozeduretan ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, haren jarraipena egiten eta eguneratzen. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako sailei, foru aldundiei eta EAEko udalei Emakunderen jarduera-eremuko gaiekin lotutako aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du.

Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:

- Otsailaren 4ko 6/2014 Dekretua onartzea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretua aldatzen duena, lege hauetan xedatua betez: otsailaren 16ko 3/2012 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko Legea aldatu zituen; eta abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen.
- Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretua onartzea, «emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzarako erakundea» aitortzea arautzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua betez eta garatuz.
- Generoaren arabera eraginaren aurreko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legearen 15. artikulua betez.
- Etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako arreta hobetzeko tokiko protokoloari buruzko txostenak igortzea, udalerriek egiten dituztenak 4/2005 Legearen 62. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebaluazio-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza tekniko eman dezaketen lankidetzarako erakundeak izendatzeko edo, hala badagokio, izendapen hori kentzeko.
- Txostenak egitea eta ebaluazio-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza tekniko eman dezaketen aholkularitza-entitateak homologatzeko edo, hala badagokio, homologazio hori kentzeko.
- Txostenak eta ebaluazioak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaietara joatea.
- Emakundek lehiaketa-bidez ematen dituen diru-laguntzen eta laguntzen deialdi, emakida eta bestelako intzidentzien (murrizketak, itzulera, jardueren aldaketak, errekursoen ebaluazioa, etab.) ebaluazio-proiektuak izapidetzea. Laguntza horiek izan daitezke:
 - emakumeen elkarteak sustatzeko,
 - emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko edota horien inguruan sentsibilizatzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko, erakunde, elkarte eta fundazioen aldetik,
 - udalerrietan eta beste toki-erakunde batzuentzat,
 - enpresa eta erakunde pribatuentzat, aholkularitza homologatuak kontratatu ditzaten, berdintasun-planak egiteko,
 - ikerlanak egiteko,
 - ikerlanak argitaratzeko (II. lehiaketa)
 - Emakumeen Kontrako Indarkerian Esku Hartzeko Unibertsitate Master Ofiziala egiteko.
- Diru-laguntza izendun eta zuzenak prestatu eta tramitatzea erakunde hauentzat:
 - Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitatearentzat, «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra» irakasteko on line 2014-2015 ikasturtean.

- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearantzat, Berdinbidean (udalerrri txikietan berdintasun-politiken inguruan aholkatzeko zerbitzua) eta Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalerrrien Sarea) garatzen laguntzeko.
- Argiri Emakume Elkartearantzat, Irungo Alarde mistoa antolatzeko.
- Askabide Elkartearantzat, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeei arreta osoa emateko programarako.
- Bilboko Elizbarrutiko Cáritasentzat, Bizkaiko giza salerosketaren egoera diagnostikatzeko proiektu bat ezartzeko.
- 2014ko Emakunde Sariaren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
- Txosten juridikoak egitea Emakundeko zuzendaritzak, beste administrazio publiko batzuek eta partikularrek eskatuta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko hainbat alderdiri buruz: zaintza konpartitua, haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko legediaren aldaketa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gipuzkoako foru-arauaren aurreproiektua, ekintza positiboen ezarpena, etab.
- Herritarren, hainbat erakunderen, funtzionarioen eta Emakundeko langileen kontsultei erantzutea eta kontsulta horiek bideratzea. Hainbat gairi buruzko kontsultak izan daitezke: laguntzen deialdiak eta emakida, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko legedia, administraziozko uztartze-eskubideak, datu pertsonalen lagapena, publizitatea, etab. Etxeko zerbitzuko langileen araudiari buruzko informazio-liburuxka eguneratzea.
- Erakundearen administrazio egintza guztien tramitazio elektronikoa.

2.3.2. Prestakuntza

Emakundek, Europako eta/edo nazioarteko erakunde ugari bezala, profesionalen prestakuntza generoarekiko sentsibilitatea adierazten duten politikak garatzeko oinarritzko estrategia dela uste du. Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi handia ematen dio prestakuntzari. Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeak aholkuak ematen dizkie, eta edukiak diseinatzen, irakasleak eta materialak bilatzen eta erakundeak koordinatzen laguntzen die. Zeregin hori gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da azken urteetan.

Zeregin horri dagokionez, nabarmentzekoa da HAEErekin egindako aholkularitza eta lankidetzaren lana, Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako 2008-2018 aldiko berdintasun arloko Zeharkako Prestakuntzako Plana garatzeko. HAEErekin lankidetzan aritu gara berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntzaren diseinuan, bai eta «Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa» ikastaroaren eta «Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarritzko ikastaroaren» irakaskuntzan ere; azken horrek bi edizio izan ditu.

HAE Erekin batera egindako lan horretaz gain, generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzak diseinatzeko aholkularitza tekniko ere eman du Emakundek, Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru- eta toki-administrazioek hala eskatuta.

Bestalde, aholkuak eman zaizkie hala eskatu duten ikastetxeei eta hezkuntzaren alorreko beste eragile batzuei, bai eta enpresei, emakume elkarteei, profesional elkarteei eta bestelako erakundeei ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza diseinatzeari eta antolatzeari buruz eta gai horretan adituak diren pertsonak eta horrekin lotutako materialak bilatzeari buruz.

Barne-prestakuntza

Prestakuntza-ekintza hauek Emakundeko langileentzat dira, haiek antola ditzaten eta parte har dezaten. Bi helburu dituzte:

- zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak adostea, gai berriak izanik, oraindik nahikoa landu ez direlako.
- berdintasun-politikak sustatzeko erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzea.

Aipatu diren barneko jarduerak bazter utzita, Emakundeko langileek interesgarriak diren prestakuntza ekimenetan parte hartzen du, bai HAE Eren prestakuntza plan orokorraren barruan, bai Emakundek zuzenean antolatzen dituen jardueretan. Azken horiek aurrerago azalduko dira, kanpoko prestakuntzari eta gure erkidegoko, estatuko edo beste Autonomia Erkidego batzuetako erakundeek antolatutako prestakuntza jardueri buruzko puntuan. Halaber, 2014aren amaieran Emakundeko langileen prestakuntza-beharren diagnostikoa egiteari ekin zaio, behar horietara hobeto egokituko den prestakuntza-proposamena garatzeko asmoarekin.

Kanpoko prestakuntza

Beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzea nahiz gure prestakuntza-jarduerak antolatzea hartzen ditu barnean.

Emakundeko langileek eskolak eman dituzte ikastaro hauetan:

- Nahiko programari buruzko hitzaldiak, zenbait erakundek antolatutak ([ikus 3.4.1. atala](#)).
- Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatua.
- Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofiziala, Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- Oinarrizko ikastaroa Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntzari buruz EHAAk antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat.
- «Generoaren eraginaren aurreko ebaluazioa», IVA Pek antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat. «Berdintasunerako IV. Foru Planaren ezarpena», Bizkaiko Foru Aldundiak antolatua eta Lehendakaritzako Sailarteko Batzordeari zuzendutakoa.

- «Berdintasunerako IV. Foru Planaren ezarpena», Bizkaiko Foru Aldundiak antolatua eta Lehendakariitzako Sailarteko Batzordeari zuzendutakoa.
- «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak» online ikastaroaren VI. edizioa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak antolatua, Gizonduz ekimenaren barruan ([ikus 3.4.2 atalean](#)).

Txostenak aurkeztu dira beste sentsibilizazio jarduerak batzuetan:

- «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoak: esparru legala eta administrazio publikoen esku-hartze tresnak», Arabako Batzar Nagusiek antolatutakoa, batzarkide eta gainerako langileentzat.
- «Gizonekin aurrera eramandako lan-esperientziak Euskadin: Gizonduz ekimena», Maskulinitateei eta Giza Garapenari buruzko I. Ipar-Hegoalde Topaketaren barruan, Birbanak, Deustu-San Inazio Modulu Psikosozialak eta Garapenerako Lankidetzarako Berdintasunaren aldeko Gizonen Koordinakundeak antolatua.
- «Emakumeek indarkeria sexistari aurre egiten: estrategiak eraikitzen» hitzaldia, Berdintasun Foroaren esparruan Beasaingo Udalak antolatutako jardunaldiaren barruan.

Emakundek honako prestakuntza-jarduerak hauek antolatu ditu zuzenean:

- XI. Berdintasun Foroa prestatzeko mintegia; foroaren izena: «Berdintasunarekin aurrera goaz. Eman pausoa». 2014ko Foroan parte hartzeko interesa zuten erakundeei zuzendua. Emakundeko zuzendariak –Izaskun Landaia Larizgoitia– inauguratu zuen, eta honako hauek parte hartu zuten: María Antonia Morena Llaneza, Asturiasko Printzerriko Hezkidetzako irakaslea eta irakasleen hezitzailea, «Benetan, berdina gara?» hitzaldiarekin; Fernando Oregi Altube Orebe Hezkuntza, SLko zuzendari-kideak «Egunerokotasunaren urrats txikien bide luzea berdintasunerantz» hitzaldia eman zuen; Raquel Raposo Acevedo-k, Emakundeko Prestakuntza eta Programen Arloko arduradunak, 2013ko Foroaren Memoria eta 2014ko Berdintasunerako Foroaren ezaugarriak aurkeztu zituen.
- «Emakumeen herritartasuna: eskubideak, parte-hartzea eta politika publikoak» jardunaldia, EAEko emakumeen elkarteentzat. Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia Larizgoitiak inauguratu zuen ekitaldia. Partaideei dagokienez, Amalia Valcárcel-ek, UNEDeko Filosofia Moral eta Politikoko katedradunak eta Estatu Kontseiluko kideak, hitzaldi hau eman zuen: «Emakumeen herritartasuna: ibilbide historikoa eta etorkizunerako erronkak»; Marina Subirats UABeko Soziologia katedradunak, aldiz, «Emakumeen eskubideak. Nola lortzen diren eta nola gal daitezkeen». Era berean, Emakundeko zuzendariak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana aurkeztu zuen. Hona hemen jardunaldiko moderatzaileak: Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia Larizgoitia, Emakundeko idazkari nagusi Ana Alberdi Zubia eta Emakundeko Prestakuntza eta Programen Alorreko teknikari Maite Santamaría Zarain.



Mintegia | Foroa



- «Maitasuna eta sexualitateari buruzko hausnarketak feminismoaren ikuspegitik. Ugaltze eskubideak», Emakumeen Osasunerako Nazioarteko Ekintza Eguna dela-eta antolatutakoa. Izaskun Landaida Larizgoitia Emakundeko zuzendariak eta Guillermo Viñegra García Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburuordeak inauguratu zuten, eta aurkezle eta moderatzaile gisa, berriz, Ane Miren Fernández Gómez Emakundeko Prestakuntza eta Programen Alorreko teknikaria aritu zen. Hona hemen hitzaldiak: «Emakumen gorputza, desberdintasunen lurraldea», Ana de Miguel Álvarez-ek, Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitateko Filosofia Moraleko irakasleak eskainitakoa; «Sexu-eskubideak, ugaltze-eskubideak. Zeri buruz hitz egiten ari gara?» Isabel Serrano Fuster-en eskutik, Madrid Salud-eko Sexu eta Ugaltze Programako ginekologoa eta Familiaren Plangintzarako Federazioko ordezkari dena; eta «Abortuaren Legearen erreforma» mahai-ingurua, Ana Alberdi Zubia Emakundeko idazkari nagusiak moderatutakoa. Azken horretan hurrengoek parte hartu zuten: Anabel San del Pozo, FeminstAldeko eta Bizkaiko Abortatzeko Eskubidearen aldeko Plataformako ordezkaria; Isabel Serrano Fuster, Erabakitzeak Libre Egiten Gaitu plataformako bozeramailea; Miren Ortubay Fuentes, EHUKo Zuzenbide Penaleko irakasle titularra eta Pepe Quintas Díez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendariordea.
- «Gizarte-komunikazioa, generoa eta balio-aldaketa», EHUKo udako ikastaroen barruan egindakoa. Hona hemen ikastaroaren helburuak: emakumeek komunikabideetan duten presentzia eta komunikazio-formatuetan nola irudikatzen diren aztertzea; masa-komunikabideetan eta publizitatean genero-identitateak eraikitzen eta komunikatzen diren moduak azaltzea; emakumeen aurkako indarkeriaren informazio- eta publizitate-tratamendua aztertzea; genero-ikuspegidun komunikabideen protagonismoa agerian jartzea, berdintasunerako gizarte-balioen aldaketaren sustatzaile gisa; ikus-entzule kritikoak prestatzeko eta sentsibilizatzeko estrategiak eta tresnak proposatzea; berdintasunerako komunikazio-esperientzia alternatibo batzuk ezagutzea: aktibismoa eta ahalduntze digitala. Honako hitzaldi hauek eman ziren: «Genero-identitateen eraikuntza eta komunikazioa komunikabideetan eta publizitatean: esparru teorikoa, lege-esparrua», Pilar López Díez-en eskutik; «Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio- eta publizitate-tratamenduaren azterketa», María Pilar Rodríguez Pérez-ek egindakoa; «Genero-ikuspegidun komunikabideen protagonismoa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako balio-aldaketaren bultzatzaile gisa», Elvira Altés Rufias-ek emandakoa; «Berdintasunerako beste komunikazioa. Aktibismoa eta ahalduntze digitala», June Fernández Casete-k egindakoa. Era



Emakumeen
hiritartasun
jardunaldia



berean, mahai-inguru hauxe egin zen: «Genero-ikuspegidun publizitatearen eta komunikazioaren erronkak EAEn». Bertan, Lucía Martínez Odriozola, Pablo Vidal Vanaclocha eta Itziar Abad Ramírez-ek parte hartu zuten. Emakundeko idazkari nagusi Ana Alberdi Zubia aritu zen moderatzaile gisa.

- «Berdintasuna eta bikaintasuna eragiten duten enpresak», Kalitate eta Bikaintasunaren XX. Europar Astearen barruan antolatutakoa (Euskaliti erakundeak sustatutako astea). Ane Miren Fernández Gómezek –Emakundeko Prestakuntza eta Programen Alorreko teknikaria– aurkeztu eta moderatu zuen jardunaldia. Hauexek parte hartu zuten: Izaskun Landaia Larizgoitia, Emakundeko zuzendaria; Santiago Lesmes Zabalegui, kontratazio publiko sozialki arduratsuan eta genero-politikan espezializatutako aholkularia, hitzaldi honekin: «Emakume eta gizonen berdintasuna kontratu publikoen esleipenerako baldintza edo pizgarri bezala»; bestalde, Maitane Urbietza Iceta eta Malu Ziordia Fernández de Garaialde-k, Eraberria aholkularitzakoak, ondokoa aurkeztu zuten: «Kontratazioan berdintasun-klausulei erantzuteko gida enpresentzat. Entitate bizkor eta jasangarrientzako ikuspegi bat». Gainera, jardunaldi horretan izendapen-plakak eman zitzaizkien 2014. urtean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundea izendapena eskuratu duten erakundeei.

2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak aztertzea, eta aztertzea, halaber, zer eragin duten harreman horiek emakumeen eta gizonen berdintasunari eza dakarten egoeretan. Hartara, berdintasun-ez horiek zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, bai eta berdintasun-ezeko egoera eta modu berriak hauGaian eta prebenitzekoak ere. Xede horrekin, Emakundek etengabe hainbat motatako azterlanak egiten ditu, arreta halaber hainbat sektoretan jarrita. Beste alde batetik ikerketa sustatzen du, eta egindako azterlanak hedatzeko jarduerak egiten ditu.

Lan ildo horren barruan sartzen dira erakundearen beraren argitalpenak, beken deialdia eta ikerkuntzan genero-ikuspegia bultzatu eta txertatzeko lehiaketaren deialdia. Antzeko xedeak dauzka erakundeko Dokumentazio Zentroak. Zentro horrek aholkularitza eta baliabideak eskaintzen ditu azterlan eta ikerlanetarako, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileentzat, bai ikerketan beste arlo batzuetan (unibertsitateetan edo bestelakoetan) aritzen direnentzat.



Osasun jardunaldia



EHU



Azterlanak

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2014

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak izeneko urteko txostenari esker, emakume eta gizonen errealitatearen deskribapen eguneratua egin ahal da euskal gizarteko eremu sozial ekonomiko eta politiko batzuetan eta besteetan. Txosten hori eginez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen diren lege-xedapenak betetzen dira, emakumeek eta gizonek gizartearen arlo batzuetan eta besteetan daukaten egoera eta posizionamenduari buruz (beharrizanak, egoerak, etab.) ikuspegi orokorra ematen duelako, bai unean unekoa, bai ebolutiboa. Txostenaren helburua da administrazio publikoek Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko adierazle-multzo bat eduki dezatela. Hala, gure gizartean oraindik ere ageri diren genero-desberdintasunen deskripzioak mesede egingo die desberdintasun horien desagertzea helburu duten programa publikoei, informaziodun oinarri batzuetatik abiatua egingo baitira. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza arloko agenteak genero berdintasunari buruz sentsibilizatzea du helburu.

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2014 txostenak informazioa bildu zeneko urtea aipatzen du. Hain zuzen ere, urte horretan bildu eta aztertu da aztertutako arlo bakoitzean eskuragarri dagoen informaziorik berriena. Informazioa errazago aztertu ahal izateko, aurkeztutako datuek aurreko urteetako egitura berbera daukate: Funtsean, EAEn indarrean dagoen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planean ageri diren neurriak bezala, arloka antolatzen dira, sei atal nagusitan:

1. Demografia-azterketa
2. Baliabide ekonomikoetarako sarbidea eta kontrola
3. Gizarte baliabideetarako sarbidea eta kontrola
4. Partaidetza soziopolitikoak eta eragina
5. Antolaketa Sozial Erantzunkidea
6. Emakumeen aurkako indarkeria

Azterlan honen metodologia bigarren mailako iturri kuantitatiboen azterketan oinarritzen da. Iturri horiek informazio estrapolagarria ematen dute emakumeek eta gizonek euskal gizartearen errealitate sozioekonomikoko esparru batzuetan eta besteetan duten egoerari buruz. Bereziki, estatistikak egiten espezializatuta dauden autonomia erkidegoko, estatuko eta Europako erakundeetara jo da, adibidez euskal Estatistika Erakundera (EUSTAT) edo Estatistikako Institutu Nazionalera (INE), bai eta gobernuko sail batzuek eta besteek gai zehatz batzuei buruz egindako azterlanetara.

Ikerlanak egiteko beken deialdiak

Ikerlanak egiteko beten deialdia 2013ko abenduan argitaratu zen, eta bertan adierazten zen beka bakoitza 23.333 eurokoa izango zela, 10 hileko lana egiteko. Hauek izan behar zuten ikerketen xedeak deitutako hiru beka-motatan: 1. beka-mota: gizarte-esparru guztietan balio-aldaketa lagunduko duten eta berdintasunerako eraldaketa soziala bultzatuko duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta faktoreak aztertzea; 2. beka-mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen taldean, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean; eta 3. beka-mota: sisGaia patriarkalari eustea laguntzen duten gizarte-fenomenoen presentzia, eragina eta azterketa.

1. beka-motan, 27 eskaera aurkeztu ziren; **2. beka-motan**, 20; eta **3. beka-motan**, 26. Eskaera denak kontuan hartzen baditugu, emakumezkoek aurkeztu zituzten guztiak, zazpi izan ezik. Balorazioak eta elkarrizketak egin ondoren, hiru bekak eman ziren, eta haien jarraipena egin zen, berariaz ezarritako bilera-egutegi baten bidez. Gaur egun, 6 pertsona ari dira prestatzen, eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

1. beka-mota

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Sara Ibarrola Inchusta : Alderdi sozialaren eragina maila pertsonal eta intimoan: ezagutzea, neurtzea eta transferitzea. EAEn, elkartegintzak emakumeen ahalduntze pertsonalari egiten dion ekarpenaren inguruko azterlana.

| Zenbatekoa : 23.333€

2. beka-mota

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea (Koordinatzailea)
Julia Nogueira Dominguez : Emakumezko etorkin zaintzaileen diskriminazio hirukoitza.

-Joseba Zalakain Hernández

| Zenbatekoa : 23.333€

3. beka-mota

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea (Koordinatzailea)
Jone Martínez Palacios : Berrikuntza Demokratiko Feministak.

-Alicia Suso Mendaza
-Igor Ahelo Gurrutxaga

| Zenbatekoa : 23.333€

2013ko beken deialdiari dagokionez, beka-mota guztiak 2014an amaitu dira, aurreikusitakoaren arabera. Hautaketa-batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza.

Ikerlanak argitaratzeko I. eta II. lehiaketak

Profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta zabalkundea sustatzeko eta laguntzeko, lehenengo lehiaketaren deialdia sortu da; izan ere, arlo horretan egin diren eta gizartearen interesekoak diren ikerlanak azpimarratu eta erakusgarri jarri nahi baitira. 2014ko martxoan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko I. lehiaketa ebatzi zen (2013. urtea). Aurkeztutako hamaika hautagaitzen artetik, Irati Fernández Pujanarena saritu zen, ikerlan hauxe tartean: Feminismo y Maternidad: ¿Una relación incómoda? Conciencia y estrategias emocionales de mujeres feministas en sus experiencias de maternidad.

2014ko urrian, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko ikerlanak argitaratzeko II. lehiaketaren deialdia egin zen. Lanok baldintza hauexek bete behar dituzte: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jarrera diferentzialaren eta bizitzaren esparru guztietako genero-harremanen inguruko ezagutza hobetu, desberdintasunak sortzen dituzten kausak hobeto ezagutzen lagundu, eta berdintasun-politiken jardunbide egoki bihurtu daitezkeen ikerlanen emaitzak jakinarazi. Bigarren lehiaketaren ebazpena hurrengo urtean zehar garatu eta egingo da.

Argitalpenak

2014an, argitalpen hauek egin dira:

- "Txostena 2013 Emakunde" | Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.
- Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin 2013 | Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana | 1.500 ale argitaratu dira paperean, bi hizkuntzatan. | Bertsio elektronikoa elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.
- Feminismo y Maternidad: ¿Una relación incómoda? Conciencia y estrategias emocionales de mujeres feministas en sus experiencias de maternidad | Bertsio elektronikoa Emakunderen webgunean aurki daiteke.
- 27. gidaliburua: Genero-berdintasunaren alorreko lan-eskubideen gida. | Bertsio elektronikoa elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.
- 33. txostena: Sexismoa jokoan eta jostailuen 2013ko publizitate-kanpainan. Analisirako tresnak. | Bertsio elektronikoa elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.
- 28. gidaliburua: Enpresentzako gida: berdintasuna kontratazioan | Bertsio elektronikoa elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.
- Berdintasunerako bideak erakundeetan - Berdinbide | Bertsio elektronikoa elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.
- Emakunderen Dokumentazio Zentroari buruzko informazio-liburuxka | 5.000 ale argitaratu dira paperean, bi hizkuntzatan. | Bertsio elektronikoa elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.
- Informazio-liburuxka: Emakunde: Nortzuk gara? Zeregite dugu? | 10.000 ale argitaratu dira paperean, bi hizkuntzatan. | Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.
- Informazio-liburuxka: Zer da Begira? | 5.000 ale argitaratu dira paperean, bi hizkuntzatan. | Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrialdean.

Dokumentazio Zentroa

(2. eranskina ikusi)

Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa- eta mantentze-lanak egin ditu (funtsak eskuratzea, katalogatzea eta indexatzea, aldizkarien harpidetzak kontrolatzea eta horietako artikulak kentzea, etab.), bai eta zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileei arreta ematearekin lotutakoak ere, esaterako, informazio-eskaerei erantzutea, aholkularitza bibliografikoa, zerrenda bibliografiko eta bideografikoak nahierara egitea, gai jakin baten inguruko prentsa-oharrak aukeratzea eta liburuak, bideoak eta abar mailegatzea.

Urteko bigarren hiruhilekoan, aurreko urtean amaitu gabeko kartelen katalogazioa eta digitalizazioa egin zuen Dokumentazio Zentroak. Hirugarren hiruhilekoan, funtsean bikoiztuta dauden liburu baten banaketa egin zen sareko kide diren emakumeen liburutegi eta dokumentazio-zentroen artean. Zentroaren jardura normala aztertzen badugu, adierazi behar da, Emakundeko langileei emandako arretari eta maileguei dagokienez, 201 kontsulta egon direla (guztira 86 liburu eta 42 ikus-entzunezko dokumentu, DVD, CD-Rom mailegatu dira).

Kanpoko erabiltzaileei dagokienez, berriz, 211 kontsulta egon dira. Horien %21,5 (45) beste autonomia-erkidego batzuek egina izan da, eta %2,5 (5), atzerriko herrialdeek egina. Guztira, 90 liburu eta 24 dokumentu mailegatu dira.

Bi kasutan, dokumentu elektroniko (PDF), Internetarako lotura eta abarren eskaerek era jarraituan gora egin dute. Kasu horietan, zentroaren zeregina, askotan, erabiltzaileei laguntza edo orientazioa ematea da, Interneteko baliabideak bilatu eta topatzeko.



Dokumentazio
Zentroa



Joera horrekin batera, telefono bidezko kontsultak zein aurrez aurrekoak murriztu dira. Hala ere, aipatzekoa da bigarren kasuan, kopurua egonkor mantendu dela azken urteotan; horrek adierazten du areagotu egin direla, batetik, eskuragarri dauden dokumentu elektronikoen kopurua, eta, bestetik, teknologia berriak erabiltzeko herritarren gaitasuna eta ohitura. Liburutegiko datu-basean, 937 dokumentu-erreferentzia berri sartu dira 2014an (% 30 monografiak dira, eta %45etik gora artikulua, dokumentuak...). Azpimarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien % 20 euskarri digitalean (DVD) dagoela -187 bideograbazio-. Emakundek ekoitzitako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igarotzeko.

Katalogatutako materialen erreferentziekin hilero Kaleratu Berrien Buletinak prestatu dira, eta barnean (Emakundeko teknikariei) nahiz kanpoan (eskatzen duten dokumentazio zentroei) banatzen dira, posta elektronikoaren bidez. Eusko Jaurlaritzako sailtako berdintasun-unitateek ere jasotzen dute buletin hori 2011. urtetik aurrera. Iragan urtean ere buletina dokumentazio zentroko erabiltzaileen zerrenda bateko kideei banatzen hasi zitzairen, erabiltzaile horiek azken bost urte hauetan eskariren bat egin baitzuten. Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak garatutako jarduera eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek, hala nola Aldizkarien Katalogo Kolektiboa proiektuan.

Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektua da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai. Gainera, «emakumea» gaiarentzat espezifikoak diren indexatze tresnen (thesaurusa) berrikuste eta eguneratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte. Horrez gain, sare horrek urrian Toledon antolatu dituen topaketetan izan da Emakunde.

3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK

Gizarte osoa da Emakunderen ekintzen hartzaile eta helburu handia. Txosten honen lehenengo zatian Emakundek erakunde publikoen eta erakunde horietan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko egitura eta tresnen bitartez gizartea xede izanik bultzatu dituen ekintzak azaldu dira, eta bigarren zati honetan, herritarrak zuzenean xede dituzten ekintzak zehaztuko dira. Ekintza batzuen zein besteen helburua, gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea da.

3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea

3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin

Aholku Batzordearen esparruan garatutako prestakuntza-lanaz eta partaidetzaren bultzadaz gain ([ikus 2.1.3 atala](#)), Emakundek beste lantalde batzuei laguntzen die eta aholku teknikoak eskaintzen ditu, hala eskatzen duten elkarrekin, dela beren proiektuak landu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia txerta dezaten, dela sareak indartu ahal izateko dinamika eta ekintzei buruz, udalerrietan nahiz mankomunitateetan, lurraldeetan, Autonomia Erkidegoan eta Autonomia Erkidegoen artean. Hona hemen nabarmendu beharreko proiektu batzuk:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Lurralde-esparruan emakumeen elkartegintza osatzeko batzordea.
- Landa-eremuko emakumeen elkarrekin.
- EAEko emakume ijitoen elkarrekin.
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak.
- Ama bakarreko familien elkarrekin.
- Emakume etorkinen elkarrekin.

Sareak sortzeko bultzadari dagokionez, Emakundek emakume-elkarrekin arteko topaketarako guneak bideratzen, sustatzen eta sendotzen jarraitu du. Arlo horretan gai hauek lantzen ari dira, besteak beste: prestakuntza-beharrak eta antzeko prestakuntza-interesak dituzten elkarrekin artean prestakuntza-proiektu koordinatuak antolatzen estrategiak. Era berean, partaidetza aktiboagoa izateko formulak eta jarduketara-ereduak sortzeko lana erraztu du Emakundek, bai emakume-antolakuntzen barneko dinamikari bai hainbat esparrutako sareetan horiek duten partaidetzari dagokionez. Zehazki, 2014an zehar autonomia-erkidego mailako sare baten sorrera laguntzeko hainbat ekintza gauzatu dira, landa-eremuko emakumeen elkartegintzaren presentzia berrantolatze eta areagotzea xede, Eusko Jaurlaritzako Ingurune, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen barruan.

Azkenik esan behar da Emakunde estatuko eta nazioarteko emakume-elkarte eta elkarte mistoen eta jarduera antzeko esparruetan egiten duten beste elkarte batzuen arteko elkartrukea bideratzen saiatzen dela.

3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak

(3. eranskina ikusi)

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzeke babesa emateaz gain, Emakundek elkarteetako jarduerak ekonomikoki babesten jarraitu du, diru-laguntzen urteroko deialdiaren bitartez. Irabazi asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioentzat da deialdia, bai eta emakumearek sustapena xede eta jarduerak eremu bakartzat duten fundazioentzat ere. Deialdiaren helburua honako hau da: emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzen dituzten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakundek behar duten laguntza teknikoa ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai diru-laguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuen diru-laguntza deialdiei buruzko informazioa ere ematen die.

Deialdira aurkeztu diren 140etatik, 127k jaso dute diru-laguntza. Guztira, 207 proiektu lagundu dira diruz, eta 320.000 euro erabili dira horretarako. DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN EMKUMEEN ELKARTEAK ETA FEDERAZIOAK

3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzak

(4. eranskina ikusi)

Esku-hartze sozial horren barruan, irabazi asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.

Horregatik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, 2014an, babes ekonomikoa ematen jarraitu du emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen inguruko sentsibilizazio- edota prebentzio-ekintzak nahiz indarkeria horren prebentziorako oinarri diren berdintasun-jarrerak sortzeko estrategiak abian jartzen dituzten erakundeei. Deialdiaren ebazpenaren lehenengo artikuluan aurreikusitako xedeetarako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 230.000 euro izan da. 63 proiektu aurkeztu dira, eta 46 proiektu onetsi, guztira.

Emakumeen elkarteak



3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa bat gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta beren errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetasun handiagoa hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntza eta -sustapenerako aukerekin, lan bizitza eta familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab... Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak enpresetan sentibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza dira, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea ere.

3.2.1. Berdintasun-planak: Aholkularitza

Emakundek aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

Berdintasunerako Legea garatuz joan denez eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerek gora egin dutela, eta ez diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko soilik, baita plan horiek abian jartzeko ere.

3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak

Berritu egin da enpresa eta erakunde pribatuek emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak diseinatzeko laguntza kontratatu ahal izateko diru-laguntzen deialdia. Hamasei enpresa hauek jaso dute diru-laguntza:

ERAKUNDE ONURADUNAK	Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan)	ERAKUNDE ONURADUNAK	Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
HIESAREN AURKAKO ARABAKO HERRITAR BATZORDEA	9.240,00	ERAGINTZA FUNDAZIOA	6.400,00
ATZEGI	7.400,00	TRAECO MEDIOAMBIENTAL, SL	6.500,00
AVIFES	9.208,00	GMSM MEDIO AMBIENTE, SA	4.450,00
IZANGAI ELKARTEA	5.924,00	DEITEL DIRECT, SL	3.425,00
AGIPAD	10.000,00	BEASKOA ELORRIAGA ETA IRIBAR, SL	5.785,13
BERZIKLATU, SL	5.950,40	HIES-AREN AURKAKO T4 ELKARTEA	8.012,80
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, SA	2.350,00	ASCENSORES MUGUERZA	941,87
HURKOA FUNDAZIOA	6.400,00		
HARRIBIDE FUNDAZIOA	8.012,80	GUZTIRA	100.000,00

Horien artean bi eraikuntza-enpresa eta irabazi asmorik gabeko bederatzi erakunde daude, bai eta zerbitzuen esparruko bost enpresa ere: ingurumenarekin lotutakoak, contact center bat eta igogailuen alorreko beste bat. Lurralde-ezarpenari dagokionez, zortzi Gipuzkoan daude, eta zazpi, Bizkaian. Proiektuak zuzenean gizoni eragingo die batez ere, eraikuntza-enpresen eta beste entitate batzuen eraginez, enpresa horietan batik bat gizonak daudelako kontratatuta. Hala ere, elkarte eta fundazioetan emakume asko daude enplegatuta; elkarte eta fundazio horien zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona gehienak ere emakumeak dira. Era askotako erakundeei lagundu zaiela ikusita, pentsatzekoa da era askotako inguruneetara iritsiko dela berdintasun-plan horiek martxan jartzeak gizartean izango duen eragina, eta horrek areagotu egingo duela etorkizunean eragin hori, bai eskaintako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak eskuratzeko dauden desorekak murrizteari dagokionez.

3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak

2014. urtean, 18 entitateri eman zaie, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakunde izendapena. Beraz, abenduaren 31n 95 lankidetzak-erakunde zeuden guztira EAEn. Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak sortu zuen figura hori, gizartean eta lan-munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak bultzatzeko eta entitate horiek guztiek berdintasunaren alorrean egiten duten lana aitortzeko.

- GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIA (Gurutze Gorriaren Zentro Soziosanitarioa Donostian eta Gurutze Gorriaren Laguntzadun Egoitza Irunen)
- CONSTRUCCIONES AMENABAR, SA
- GOITU ERAIKUNTZAK, SL
- DIGITALAK, SL
- BIHARKO GIPUZKOA, SL
- ORTZADAR, SL
- ALTUNA Y URÍA, SA
- COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO San Sebastián-Tolosa, SA
- COOPERATIVA DE TRANSPORTES DEL PUERTO DE PASAJES, SDAD. COOP. LTDA
- INGETEAM POWER TECHNOLOGY (Technology eta Electronics ekoizpen-unitateak)
- EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, SL
- ORONA, S. COOP
- IZAN FUNDAZIOA
- GUTXITASUN FISIKOA EDOTA ORGANIKOA DUTEN PERTSONEN BIZKAIKO FEDERAZIO KOORDINATZAILEA (FEKOOR)
- LURGOIEN, SA
- ARABAKO GURUTZE GORRIA
- AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA, SL
- IPACE, SL

Izendapen hori lortzean, Emakundeko Zuzendaritzak plaka bat ematen die erakundeei, lankidetzak-erakundeak direla egiaztatzeko. 2014an, ekitaldiak egin dira, enpresa hauei plaka emateko:

- GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIA (Gurutze Gorriaren Zentro Soziosanitarioa Donostian eta Gurutze Gorriaren Laguntzadun Egoitza Irunen)
- CONSTRUCCIONES AMENABAR, SA
- GOITU ERAIKUNTZAK, S.L.
- DIGITALAK, SL
- BIHARKO GIPUZKOAKO, SL
- ORTZADAR, SL
- ALTUNA Y URÍA, S.A.
- COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO San Sebastián-Tolosa, SA
- COOPERATIVA DE TRANSPORTES DEL PUERTO DE PASAJES, SDAD. KOOP. LTDA
- INGTEAM POWER TECHNOLOGY (Technology eta Electronics ekoizpen-unitateak)
- EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, SL
- ORONA, S. COOP
- IZAN FUNDAZIOA
- GUTXITASUN FISIKOA EDOTA ORGANIKOA DUTEN PERTSONEN BIZKAIKO FEDERAZIO KOORDINATZAILEA (FEKOOR)
- LURGOIEN, SA
- ARABAKO GURUTZE GORRIA
- AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA, SL

Lankidetzak-erakundeen aintzatespenari lotutako berritasun handiena 11/2014 Dekretuaren onarpena da, 424/1994 Dekretua aldatzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua garatuz. Dekretu horrek hainbat ekarpen txertatzen ditu, metatutako kudeaketaren ondorioz beharrezkotzat jo direnak, gaur egungo araudi-esparruari eta beharrei erantzuteko helburuarekin.

Dekretu berri horren bitartez, hiru erakunde berri aintzatetsi, eta beste hiruren eskaerak ezeztatu dira. Dekretu berriaren onarpena dela bide, eta kontuan hartuta orain arte aintzatetsitako erakundeek aintzatespena berriro eskatu behar dutela 2015eko otsaila amaitu baino lehen, ez da egokitzen jo lankidetzak-erakundeen jarraipena egitea, 424/1994 Dekretuaren arabera. Horren ordean, lau lurralde-bileran egin dira (bat Bilbon, bi Gasteizen eta beste bat Donostian), lankidetzak-erakundeei eta homologatutako aholkularitzari informazioa emateko, dekretu berriaren eskakizunen eta esparru berriaren barruan aintzatespen hori lortzeko oinarritzotzat jo diren alderdien inguruan.

Bestalde, aurreko deialdietan Emakunderen diru-laguntza jaso eta justifikatu duten erakundeek jarraipena egin da, eta eskatu zaie lanean jarraitu eta lankidetzak-erakunde bihurtzeko konpromisoa betetzeko.

3.2.4. Aholkularitza-entitateen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Enpresa baten eskaera baloratu da, eta aholkularitza homologatu gisa akreditatua izan da, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, 105/2004 Dekretuaren babesean –abenduaren 28ko 348/2010 Dekretuak aldatu egin du Dekretu hori-. Hauxe izan da akreditazioa jaso duen aholkularitza:

- Oreka Sarea, S.L.

Azkenik, homologatutako aholkularitza-entitateen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko. Abenduaren 31n emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan homologatutako 24 aholkularitza-entitate zeuden.

3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Prestakuntzako material eta jarduerak lantzea enpresei laguntzeko beste bide bat da. 2014an enpresentzako prestakuntza-ekintzak proposatzeko eskatu zaie homologatutako aholkularitzei, 2015ean zehar prestakuntza-programa bat diseinatzeko helburuarekin. Halaber, hurrengo dokumentu hauek eguneratu dira ([ikus argitalpenei buruzko 2.3.3 atala](#))

- **Emakumeen Enplegua Sustatzeko Kontratu-motei eta Laguntzei buruzko Gidaliburua eguneratu da.** Tresna horren helburua da aholkularitza ematea enpresei eta erakundeei, emakumeen enplegua sustatzeko indarrean diren kontratu-modalitateen, hobarien eta laguntzen berri izan dezaten.
- **EAEn Emakumeen Ekintzailetza Bultzatzeko. Laguntzen Mapa eguneratu da.** Enpresa-jarduera bat abiarazi nahi duten emakumeentzat da, eta, dauden laguntzei buruzko informazioa emanez, ekintzaileei laguntza eta aholku ematen dieten erakunde publiko eta pribatuentzat.
- **Berdintasuna kontratazioan: enpresentzako gidaeta Berdinbide tresna.** Bion xede espezifikoak zera da: enpresei, beren lizitazioetan, berdintasun-klausulen eskakizunei erantzun egokia ematen laguntzea. Horretaz aparte, antolamenduen kudeaketan eta funtzionamenduan berdintasuna sustatzea dute helburu orokor gisa.

Enpresa sariak



3.3. Herritarrei zuzeneko arreta emateko jarduketak, sektore pribatuan berdintasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioa defendatuta

Atal honetan aurkezten dira sektore pribatuan berdintasunaren eta sexuaren arabeko bazterketa-ezaren printzipioa defendatzeko Emakundek 2014an emandako zerbitzuak. Alor horretan Emakundek dituen funtzioak eta mugak, hurrenez hurren, 3/2012 Legearen (otsailaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzeko dena) 64. eta 65. artikuluetan ezarrita daude. Aipatu artikuluekin bat, lau jarduketa-mota egiten ditu alor horretan.

Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre

Emakundek herritarrei arreta emateko ordutegi bat du, aurrez aurreko kontsultei zein telefono bidezko erantzutea xede. 2014. urtean, berehala aholkularitza emateko 259 kontsulta erregistratu dira, aurrez aurrekoak zein telefono bidezkoak. Gaiari dagokionez, aipatzekoa da heren bat banantzeen eta dibortzioen hainbat alderdiri buruzkoak izan direla, eta esparru hori Emakunderen eskumenetatik kanpo dago. Kontsulten beste heren batek laneko esparrua izan dute hizpide; gainerakoen kasuan, askotarikoak izan dira kontsulten gaiak, esaterako, etxeko zerbitzuari buruzko araudia, genero-indarkeria eta elkartegintza.

Txostenak egitea

2014. urtean garraio publikoko enpresa baten eskaerari erantzuteko txostena egin du Emakundek. Zehazki, enpresa batek enpresa eskatzailearen publizitate-euskarriak kontratatu nahi zituen publizitate-helburuetarako. Hala, eskatzaileak txosten juridikoa egiteko eskatu zion Emakunderi, publizitate-kanpaina horren inguruan. Txostenean ondorioztatu zenaren arabera, publizitatea sexista zen; hortaz, ezin izan ziren euskarriok kontratatu, aipatu publizitaterako.

Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak, eta kexa eta salaketen prozedurak

Guztira 111 izan dira bai kontsulten idatzizko erantzunak bai kexa eta salaketen prozedurak. Horietatik, 53 kontsultak izan dira (% 47), 26, kexa (% 24) eta 32, salaketa (% 28). Jarraian kontsulta, kexa eta salaketa horiek guztiak aurkezten dira, bost eremu handitan sailkatuta (lanekoa, komunikabideak eta publizitatea, kirola, elkarrekin eta beste batzuk). Datuon bidez errealitatera errazago hurbiltzeko, eremu bakoitzaren barruan kontsultak, salaketak eta kexak bereizita ageri dira. ([5. eranskina ikusi](#))

3.4. Gizarte-sentsibilizazioa

Berdintasuna benetan lortu ahal izateko, emakume eta gizonen portaerako jarraibide soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu behar dira eta gure izaeran sustrai sakonak dauzkaten balio batzuk aldatu behar dira. Horien ordeez genero-zereginen atribuzio soziala etxean zein lan-arloan murriztuko duten beste batzuk ezarri behar dira, zaintza-lana beharizan sozial eta erantzukizun konpartitu gisa ikusaraziko duten balioak, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotuko dutenak, sexu biei balio eta prestigio bera emango dietenak, eta bereziki gizonei dagokienez, gizonen eredu tradizionala auzitan jarri eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak garatuko dituztenak.

Ezinbestekoa da gizartea orokorrean nahiz gizartean eragina duten profesionalak, gizarte-eragileak eta beste erakunde batzuk sentsibilizatzea, berdintasuneko eredu bat xede izanik aldatzeko beharizanari buruz. Horregatik, Emakunderen eginkizunetako bat gizartea sentsibilizatzeko jarduerak egitea da. Jarduera horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldiak, kanpainak, aldizkari digitala eta web-ingurunea, Berdintasunerako Emakunde Saria eta eztabaida-foroetan nahiz hedabideetan etengabe duen parte-hartzea.

Emakume eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazioa funtsezkoa da desberdintasunaren ondoriozko arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei aurre egiteko, eta horien artean larrienari, emakumeen aurkako indarkeriari, alegia.

3.4.1. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetza-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. 2014an zehar, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera egin den deialdian parte hartu duten 24 ikastetxeei laguntza eta prestakuntza eman zaie, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren barruan. Ikastetxeotan Lehen Hezkuntzako 2.100 ikasle baino gehiago daude.

Hona hemen 2014an gauzatu diren jarduera esanguratsuenak:

- Programan parte hartu duten irakasleentzako (guztira, 104) hiru prestakuntza-jardunaldi orokor aurrera eraman dira. Horietan, programaren garapenari buruzko alderdi orokorren berri emateaz aparte, ikasgelan berdintasunean oinarrituta lan egitearen inguruko zenbait gai jorratu dira:
 - I. Jardunaldia: «Hezkidetza ikastetxeetan: zergatik, zertarako eta nola», Amparo Tomé-rekin, eta «Sentimenduak eta adimen emozionala berdintasunetik», M^a Ángeles Rebollo-rekin.
 - II. Jardunaldia: «Maitasuna eta berdintasuna: ezinezko misioa?», Ana de Miguel-ekin, eta «Eraikuntza sinbolikoa berdintasunetik: ez ogrorik ez printzesarik», Adelina Lenarekin.
 - III. Jardunaldia: «Berdintasuna, elkarbizitza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa», Concepción Cazola-ren eskutik, eta «Emakumeen aurkako indarkeria. Emakumeen aurkako indarkeriaren modu berriak telefono, Internet eta sare sozialen bidez», Iñire Estébanez-ekin.

Nahiko programa hezkidetza-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. 2014an zehar, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera egin den deialdian parte hartu duten 24 ikastetxeei laguntza eta prestakuntza eman zaie

- Hiru hilabeteko bederatzi mintegi egin dira (hiru hiruilekoko, eta bakoitza Lehen Hezkuntzako ziklo batentzat). Horietan prestakuntza espezifiko eman da, hiruilekoko bakoitzean landuko ziren unitate didaktikoak ezagutzera eman dira, eta aurreko hiruilekoko esperientzia ebaluatu da.
- Banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.
- Berritzeguneekin jardunaldi bat aurrera eraman da, Nahiko programa modu espezifikoan ezagutzera emateko. Horren ostean, 35 material-kaxa bidali zaizkie, inguruko ikastetxeen esku jar ditzaten.

3.4.2. Beldur Barik programaren esperientzia pilotua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan

2014an esperientzia pilotu bat martxan jarri du Emakundek, 2013aren amaieran onartutako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren hezkuntza-sisGaian hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren barruan. Esperientzia pilotu horretan Beldur Barik kanpaina indarrean egon den urteetan ([ikus kanpainei buruzko 3.4.4. atala](#)) gazteek garatutako ikus-entzuneko edukiak didaktika-helburuetarako erabili nahi izan dira, ostean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan baliatu ahal izateko. Azken finean, esperientziaren helburua da hezkuntza arautuaren esparruan gazteriarentzat interesgarriak diren gaiak lantzea, gazteek eurek egindako bideoen bitartez.

Lehenengo pauso gisa, Beldur Barik programatik Bigarren Hezkuntzako irakasleei ezagutza transferitzeko beharrezkoak diren programazioak eta baliabide pedagogikoak diseinatu eta landu behar izan dira. Guztira hemeretzi unitate didaktiko sortu dira, bai eta irakasleentzako dossier teoriko bat ere.

Gainera, osatutako materialaren interesa ikusita, ikasgeletan probatzea erabaki zen. Horretarako, ostean irakasleei prestakuntza eman zaie, garatutako materialarekin ikasgelan zuzenean jardun dezaten. Irailean eta urrian, irakasleak prestakuntza teorikoa jasotzen hasi ziren. Abenduan amaitu zen prestakuntza, osatutako programazioak eta baliabide didaktikoak jendaurrean aurkeztu baitziren. 16 ikastetxek eta 106 irakaslek hartu dute parte, guztira, prestakuntzan.

3.4.3. Gizonduz ekimena

Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezen sustatzea da. Honako helburuak ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonen etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

2014. urtean, honako jardura hauek egin dira, Gizonduz ekimenaren barruan:

- **Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea** (www.euskadi.net/gizonduz) administratzea. Webgune horrek ekimenari buruzko informazio zabala hainbat euskarritan eskaintzen du, hala nola elkarrizketekin osatutako atalak, dokumentazio gunea, bibliografia, bideoak, web gune interesgarrietarako loturak, etab. Gainera, bloga ere dago eskura, herritarrei zabalduriko gunea, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitasunarekin zerikusia duten berriei buruzko iritziak, hausnarketak eta iruzkinak adierazi ahal izateko.
- **Sare sozialetan parte hartzea.** Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube, Vimeo eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldian behin eguneratu egin dira. 2014an, Facebookeko datu hauek nabarmendu behar dira: 443 argitalpen egin dira, batez besteko lagun-kopurua 5.041 izan da eta egunean batez beste 340 pertsonak jo dute orrialdera. YouTube 1.436 ikustaldi erregistratu dira.
- **Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa.** 2014ko apirilean jarri zen abian programa honen seigarren edizioa. Zenbait ikastaro osatuta dago; batzuk aurretik aurrekoak dira, eta beste batzuk, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitzeko modukoak eta malguak dira. Bi ikastaro-mota daude: programatutakoak, hau da, ikastaroaren alderdi nagusiak (edukiak, ezaugarriak, egutegia, tokia, etab.) aurretik zehaztuta dituztenak; eta programatu gabeak edo neurri egindakoak, eskaintzaren arabera antolatzen direnak bai iraupenari eta edukiei dagokienez, bai eta tokiari eta hartzaileri diren pertsonen dagokienez ere. Nahiz eta emakumeek ere har dezaketen parte ikastaro horietan, gizonentzat dira bereziki; hain zuzen ere, bakarka edo taldean, interes pertsonalak bultzatuta eta/edo ikuspegi profesionaletik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen sakonago ezagutu nahi duten gizonentzat. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa... 2014an 475 prestakuntza-ordu inguru eman dira, eta antolatutako ikastaro batzuetan eta besteetan 719 gizonen eta 470 emakumeen hartu dute parte.
- **«Gazteak Berdintasunean 2.0»** proiektua Proiektua EJE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan garatu da, eta bere xedea da nerabe eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizonen berdintasuna, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Horretarako, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira. Proiektuak hiru plataforma ditu:
 - Informazio-web edo erakustoki bat: proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango du.
 - On line abentura grafiko bat (bideo-joko bat). Abentura horretan, erabiltzaileei zenbait egoera adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta halakoak izango dituzte, eta zenbait aukeraren artean erabaki bat hartu beharko dute.
 - Komunitate birtuala, nerabeen arteko komunikazioa sendotuta partaidetazko guneak sortuko dituena.
- **Gizonduz programaren ebaluazioa diseinatzea.** Gizonduzen ebaluazioa diseinatu da, 2015ean zehar aurrera eramango dena.
- **Berdintasunari buruzko unibertsitate-master eta -graduondokoen eta HAEren ikastaroen publizitatea egitea, bai eta Berdintasunerako Gunearena ere.** Gizonak prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardura horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak haien publizitatea egin du bere aldizkari elektronikoaren eta webgunearen bidez.
- **Mintegiak eta hitzaldiak.** Emakundek honako hauek antolatu ditu Gizonduzen barruan: «Gizonak, maitasuna eta berdintasun-harremanak», Emakunderen egoitzan egindakoa eta Irekiaren bidez helarazitakoa.

Sentsibilizatzeko beste jarduera batzuk. Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, Emakunde zenbait komunikabideetan agertu da, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu du. Adibidez, hauetan:

- Gizonei eta emakume eta gizonen berdintasunari buruzko mintegia, Europako Genero Berdintasunerako Erakundeak antolatua.
- Maskulinitateei eta Giza Garapenari buruzko I. Ipar-Hegoalde Topaketa, Birbanak, Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialak eta Garapenerako Lankidetzarako Berdintasunaren aldeko Gizonen Koordinakundeak antolatua.
- Berdintasunaren aldeko Euskal Herriko Gizonen Elkarguneak –Gizon Sarea– antolatutako lan-jardunaldia.

3.4.4. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunerako Emakundek diseinatutako 2014ko kanpainak azpimarratu zuen berdintasunerantz pausoak emateak gizarte gisa aurrera egitea esan nahi duela; hala, gizartea osatzen duten pertsona guztiak animatu zituen, nor bere egunerokoan pausoak eman ditzan berdintasunaren alde: lanean, familian, lagun-taldean... Pertsona bakoitzak berdintasuna lagundu edo oztopatu dezaketen eguneroko keinuak, erabakiak eta ekintzak kontuan hartzea proposatu zuen.

Kanpainaren leloa hauxe izan zen: «Berdintasunarekin aurrera goaz. Eman pausoa». Martxoaren 3tik 13ra bitartean egin zen kanpaina, kanpoko euskarrietan eta komunikabideetan. Gainera, 5.000 kartel eta 2.000 eranskailu bidali zitzaizkien, besteak beste, erakunde, ikastetxe, osasun-zentro, elkarte, enpresa, kultura-etxe eta liburutegiei, bai eta kaleko ekintzak (street marketing) aurrera eraman ere: EAEko hiru hiriburuetan, «berdintasunezko» zebra-pasabideak instalatu zituen oinezkoentzako gunetan, eta oso deigarriak izan ziren. Horretaz aparte, sare sozialetan horren berri eman zen, eta herritarrentzako partaidetza-proposamen bat egin, Irekiaren bidez. Kanpaina komunikabideei aurkezteko prentsaurrekoa antolatu zuen Emakundek, eta zuzendariak iritzi-artikulu bat argitaratu zuen zenbait hedabideetan, kanpainaren leloari erreferentzia eginez.

Martxoaren 8ko
kartela



Martxoaren 8ko kanpaina



Balio-aldaketaren aldeko sentsibilizazio-kanpaina

2014an, sentsibilizazio-kanpaina bat abian jarri zuen Emakundek, gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoa lortzeko balio-aldaketa ezinbestekoa dela azpimarratzeko. Noa izeneko neska gazte bat du protagonista, eta eguneroko bizitzan gertatzen diren desberdintasun-egoerak aurkezten ditu.

Sentsibilizazio-kanpainaren barruan lau telebista-iragarki, irratiragarkiak eta Internetarako bannerak egin ziren. ETBko kanaletan, EITB taldekio irratietan eta eitb.com-en zabaldu zen, bi txandatan: bata ekainean eta bestea abenduan. Kanpainak Eusko Jaurlaritzak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ardatz nagusietako bati erantzuten dio, honi, hain zuzen ere: balio-aldaketa eta genero-rolen eta estereotipoen ezabapena gure gizartean. Pertsonen sinesmenetan eta gizarte-ordena sinbolikoen eragitea ezinbestekoa da gizartean aldaketak eta eraldaketak lortzeko, eta horregatik jarri zuen martxan Emakundek aipatu sentsibilizazio-kanpaina. Telebista eta irratirako iragarkien leloa «Eman pausoa. Berdintasunarekin aurrera goaz» izan zen, eta zehazki, iragarki bakoitzak gai hauek jorratu zituen:

- 1. IRAGARKIA: Zainketa balioespina eta banaketa. Lehenengo iragarkiak laneko bizitza eta familia bateratzearen garrantzia eta erantzunkidetasuna azpimarratzen ditu. Hona hemen bere lelo espezifikoak: «Eraiki dezagun zainketa aintzat hartu eta partekatzen duen gizarte bat».
- 2. IRAGARKIA: Teknologia berrien bidezko gazteen kontrola, askatasun-mugatzea eta jazarpena ditu hizpide, eta bere leloa «Ez kontrolatu eta ez utzi kontrolatzen» da.
- 3. IRAGARKIA: Eredurik inposatzen ez duen eta pertsonak diren bezalakoak errespetatuko dituen gizarte baten alde.
- 4. IRAGARKIA: Aintzatetsi eta balioetsi dezagun emakumeen ezagutza, hurrengo belaunaldien erreferente bihurtzeko.

Kanpaina uztailan osatu zen: jaietan herritarrak sentsibilizatzea helburu zuten materialak ekoitzi ziren (eranskailuak eta kartelak). Leloa «Jaia+errespetua= denontzako gozamina» izan zen, eta errespetuan oinarritutako eta erasorik gabeko jaiak ospatzea bilatu zuen. EAEko udalerri guztiak kanpainan parte hartzeri gonbidatuak izan ziren.



Azaroaren 25eko kanpaina. Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

2006az geroztik, kontzientiazio-kanpaina bat egiten da urtero Berdinsarearen esparruan, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. 2013az geroztik, Emakundek du kanpaina hori kudeatzeko ardura. Hala, hiru foru-aldundien laguntzaz eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin, EHurekin eta ETBrekin lankidetzan, haren diseinua, garapena eta ebaluazioa sustatzen ditu zuzenean.

Kanpaina gazteentzat izaten da, eta, haren barruan, Beldur Barik programa antolatzen da. Programa horrek zenbait ekimen hartzen ditu barnean. Alde batetik, Beldur Barik lehiaketa nabarmendu beharra dago, emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrerak eta proposamenak bultzatzea xede duena. 2014an, izugarritzko erantzuna izan du lehiaketak: 230 lan aurkeztu dira -horietatik 224 onartuak izan dira- eta guztira 1581 gaztek parte hartu dute horien ekoizpenean. Bosgarren edizio honetan, lehiaketaren beste helburu bat izan da sustatzea era guztietako arte-adierazpenak egin daitezzen, bai eta horiek balioestea ere, erakusteko nola egiten dioten aurre neska-mutilek emakumeek gaur egun bizi duten berdintasunik ezaren egoerari, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeria sexistari uko egitean oinarritutako jarreraren eta portaeraren bidez. Joan den urteetan bezala, bosgarren edizio honen xedeetako bat ikastetxeen parte-hartzea sustatzea izan da. Beste alde batetik, Udal batzuek zein besteek tokiko ekimenak garatzeko pizgarria ematearen alde egin da. Horregatik, tokiko prozesu horiek diseinatu eta garatzeko aholkularitza eta laguntza indartu dira. Guztira 67 udalerrrik hartu dute parte programan, proposatutako lan-maila batzuetan eta besteetan.

Lan hauek izan dira lehiaketako irabazleak:

- Lehenengo kategorian (12 urtetik 17ra), Eta guk zer? Durangotik bidalitako bideoak lortu du 500 euroko saria. Yaiza Iglesias, Paule Arnaez eta Ane Martínez izan dira egileak. Epaimahaiak erabakitakoaren arabera, Beldur Bariek sustatutako jarreretako bat erakusten du lan horrek, hizkuntza modu sexistan erabiltzeak emakumeen artean eragiten duen ikusezintasuna eta bazterkeria azpimarratzen dituen heinean.

Azaroaren 25a



- **Bigarren kategoriako** (18 urtetik 26ra) irabazleak, eurak ere 500 euro jaso zituztenak, Panteras bideoaren egileak izan ziren: Sara Domínguez, Samantha Reyes, Rocío Ferrero, Belén Ferrero, Iratxe Aldaburu, Natalia Álvarez eta Estizen Aguirresarobe. Bideoklip horrekin, bertan ageri diren jarrera eta letrekin, nesken inguruko estereotipo sexistak deuseztatzen dituzte, orain arte oso maskulinoa izan den musika-genero bat erabili baitute euren lana aurkezteko, rapa, hain zuzen ere. Abesti horrekin, gainera, indarkeria sexistaren aurkako emakumeen indarra eta batasuna helarazten dituzte.
- Horretaz aparte, lehenengo kategorian aipamen berezia egin zen, eta 300 euroko saria eman zitzaion Durangoko Game over bideoari, Jone Cengotitabengoa, Marina Rubio, Araia Eguia, Iraia Mendizabal, Julene Urien, Ziortza Navarro eta Naiara Blando-k egindakoari. Lan horretan, jaien alorreko eguneroko egoera bat indarkeria sexista gisa identifikatzen dute, eta erasoari modu aktiboan aurre egiten diote protagonistek.
- Bigarren kategoriako aipamen bereziak –300 eurokoa zen saria– Maitekiro lanak jaso zuen. Arrigorriatik bidalitakoa, Iratxe Martín, Alazne Lastra, Leire Alonso, Aurora Díaz eta Unai Elizalde dira egileak. Lan horretan gizarteak emakumeei transmititzen eta eskatzen dizkien zenbait agindu identifikatzen dira, honela laburbildu daitezkeenak: beste pertsonentzat bizitzea. Baina, aldi berean, emakumeen autoestimua sendotzen duten ahalduzko-mezuak helarazten dituzte lan horretan.
- Era berean, herritarren artean egindako bozketan, Kateak moztu, libre izan lana atera zen irabazle, 828 boto jaso baitzituen. Hona hemen egileak: Irune Alfonso, Erika Amundarain, Maider Ormazabal, Ane Lorence, Aitziber Usabiaga, Nagore Arin, Ainhoa Beobide eta Leire Muñagorri. Kasu horretan ere, saria 300 eurokoa izan zen.
- Edizio horretan, lehendabiziko aldiz, ikus-entzunezko ekoizpen onenari 300 euroko saria eman zitzaion. Donostiatik bidalitako Donde todo empieza lana izan zen irabazlea, eta Iñaki Irizar, Jessica Martín, Daniel Rascón, Jon Ander Rodríguez eta Egil Iraizoz izan ziren egileak. Animazio horren bidez, aditzera ematen da indarkeria sexistaren oinarria sexuen erakuntza binarioaren (emakumea-gizona) ondorioz sortzen diren bereizketan eta desberdintasunetan dagoela.
- Beste alde batetik, azaroaren 29an Beldur Barik Topaketa aurrera eraman zen Urola Garaian. Zumarragako Zelai Arizti kultur-etxean sei prestakuntza-tailer egin ziren. 230 gaztek parte hartu zuten, eta gai hauek landu zituzten: Autodefentsa feminista. Rap feminista; stop motion. Nire gorputzaren jabe: hilekoa. Desioaren laborategia (mutilen taldea, nesken taldea). Sari-banaketa Urretxuko Labeaga Areto Nagusian egin zen, eta 350 pertsona bertaratu ziren.

Beldur Barik programa zenbait ingurunetan eta erakundetan aurkeztu da, hala nola berritzeguneetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez.

3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea

Urriaren 1etik abenduaren 12ra bitartean abiarazi zuen Emakundek Berdintasunerako 2014 Foroa: erakunde publiko eta pribatuentzako eremu komun horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzen dituzte, hartara Euskadin alor horretan egiten den lana ikusarazteko.

2014koa foroaren hamaikagarren edizioa izan da. Martxoaren 8a ospatzeko Emakundek sustatutako kanpainaren leloa jaso du: «Berdintasunarekin aurrera goaz. Eman pausoa». Helburu nagusietako bat berdintasunaren mezua udalerrri eta pertsona gehiagorengana helaraztea izan zen, eta, horretarako, aldaketak egin ziren foroaren formatuan. Lehenengoa zera izan da: espazio ibiltari bat txertatu da -autobus bat-, eta hala, Euskal Autonomia Erkidegoko herri askotan ezagunago bihurtu da foroa.

Gainera, hainbat erakundek, elkartek, enpresak, udalek eta beste batzuek eskatuta, ekintza desberdinak garatzeko baliatu da autobusa, eta horrek, aldi berean, foroa herritarrengana hurbiltzea eragin du. Era berean, ikasgela gisa ere erabili da espazio hori, eta tailerrak egin dira hiru lurralde historikoetan.

Berdintasunerako XI. Foroak gunea zabal eta anitza eskaini du, berdintasunak duen gizarte-balioari buruz hausnartzeko, zehazki alderdi hauetan:

- 1) Berdintasunaren alde lan egiteak eskatzen duen mezu positiboari eustea.
- 2) Pertsona bakoitzak bere egunerokoan eman ditzakeen pauso txikiak identifikatzea.
- 3) Gure egunerokoan, zer dugu oraindik gauzatzeko, berdintasunerantz aurrera egin dezagun?

Donostia Foroa | haurralde



98 erakundeek parte hartu dute: elkarteak, enpresak, fundazioak, Eusko Jaurlaritzako sailletako zuzendaritzak, unibertsitateak edo ikastetxeak, alderdi politikoak, enpresaburu-elkarteak, profesionalen elkargoak, udalak eta sindikatuak. Guztira, 140 jarduera egin dira 51 herritan, eta 5.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Nabarmenezkoa da edizio honetan parte hartu duten pertsonen kopuruak gora egin duela, parte hartu duten erakundeen eta egin diren jardueren proportzio berean.

3.4.6. Emakunde aldizkariaren argitalpena

Formatu digitalaren aldeko apustua sendotu du Emakunde aldizkariak 2014. urtean. Apustu hori egin da, teknologia berriek ematen dituzten abantailez baliatzeko; hau da, ingurumena zaintzeko eta kostu ekonomikoak murrizteko.

Aldizkariak 535 harpidedun ditu, eta horiek aldian-aldian berritasun-buletinak jasotzen dituzte euren posta elektronikoan. Sare sozialen babesari esker, aldizkariako edukiok hedapen handia dute.

Elkarreragina formatu digitalaren beste lorpenetako bat da, berri askok irakurleen iruzkinak jasotzen dituzte eta.

Aldizkariaren helburuetako bat gure gizarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakunde berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea da, eta horrez gain berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere bai. 2014an, hurrengo hauekin hitz egin dugu elkarrizketa sakonen atalean: Elizabeth Lira psikologoa, Mercosur-eko Familia Ekoizleen Konfederazioko Emakumeen Alorreko arduradun Marisa Boschetti, Irati Fernández de Pujana ikertzailea, Marina Subirats soziologoa eta Adriana Kaplan antropologoa

3.4.7. Hedabideetan agertzea

Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, erakundeak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu.



2014an, guztira, hedabideei 42 prentsa-ohar bidali zaizkie eta hedabideei prentsaurrekoetarako deialdiak 12 aldiz bidali zaizkie. Halaber, Emakundeko zuzendariak hedabideetan hainbat iritzi-artikulu argitaratu du:

- Pauso irmoak, beste balio batzuetarantz: keinu guztiek balio dute. Izaskun Landaia Larizgoitia (2014-03-08)
- «Cuadrilla busca cita» programa kentzeaz, Ana Alberdi Zubia (2014-06-20)
- Urratsak. Izaskun Landaia Larizgoitia (2014-06-09)
- Denon ardura. Izaskun Landaia Larizgoitia (2014-12-14)

Horrez gain, hedabideen kontsulta eta eskariei erantzun zaie, adibidez elkarrizketak egiteko, datuak eskuratzeko, etab. Kontsulta gehienetan zera eskatu da: elkarrizketak Emakundeko zuzendariarekin, elkarrizketak egitea merezi duten adituei buruzko informazioa, emakumeen aurkako indarkeriarekin edo emakumeen lan egoerarekin lotutako datuei buruzko informazioa, hainbat esparrutan (osasuna, lana, politika, etab.) berdintasunarekin lotutako hainbat gairi egindako azterlanei buruzko informazioa... Emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeari ekiterakoan, hedabideek dauzkaten erreferentzien artean Emakunde da lehenengoetariko eta nagusietariko bat.

3.4.8. Berdintasunaren Emakunde Saria

Irailaren 12ko 166/2006 Dekretuak sortu eta arautzen du Berdintasunerako Emakunde Saria. Hala ere, 1990. urtean Emakunde sariekin hasitako lanaren emaitza da; sari horiek urtero eman izan dira, 2005. urtera arte.

2006. urtean, 16 urtez Emakunde Sariekin lanean aritu ondoren, sari horiek birformulatu egin ziren, eta Berdintasunerako Emakunde Saria sortu zen. Sari horren helburua da azpimarratzea eta jendaurrean aitortzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko eta juridikoen, publiko nahiz pribatuen, jarduera. Saria ematen zaie, emakumeen lana aitortzen laguntzeko edo emakumeen ahalduntzea hobetzeko zenbait ekintza, lan edo proiektu egin

Emakunde eta komunikabideak



dituztelako, edota beren jarduerak nabarmen lagundu duelako emakumeen zeregina balioesten eta duin bihurtzen edo EAEko emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen.

2014an, 2013ko Emakunde sariaren irabazle izandako Bilboko Posada de Los Abrazos elkarteari saria emateko ekitaldia egin zen. Izan ere, egun bizi ditugun une gogorrek kontuan hartuta bereziki, lan handia egiten du prekaritatean bizi diren eta indarkeria sexista pairatzen duten emakumeei laguntzen, emakumeok dituzten behar premiazkoei eta egoera zehatzei erantzuten. Bilboko Euskalduna jauregian izan zen, 2014ko apirilaren 7an, eta ekitaldi horren aurretik, goizean, «Emakumeen herritartasuna: eskubideak, parte-hartzea eta politika publikoak» jardunaldia antolatu zen, emakumeen elkartegintzari zuzendutakoa. Beste alde batetik, 2014ko Emakunde sariko epaimahaiak Berdintasunerako Emakunde saria jakinarazi zuen. Aurkeztutako 27 hautagaitzetatik, María de Maeztu Forum Feminista atera zen irabazle, duela 25 urte baino gehiago hasitako borroka feminista aintzatetsiz era horretan. Hain zuzen ere, Euskadiko lehenengo elkarte feministetako bat da. Epaimahaiak azpimarratu zuen, halaber, elkarteak bere ibilbidearen hasieratik beste emakume batzuekin eta beste emakume-elkarte batzuekin egindako sare-lana. Izan ere, lan horren bidez, alderdi politikoetan eragitea lortu zuen berdintasun-erakunde bat sustatu zezaten EAEn. Urte horietan guztietan, gainera, sare-lan horri eutsi dio elkarteak, beren proposamen eta salaketen eragina handiagoa izan dadin. Horretaz aparte, berdintasunaren alorrean egindako gizarte-kontzientziazioa eta erakundeekiko lankidetzak balioetsi zituen, bai eta bere salaketa-eginkizuna ere, emakumeen eskubideak galtzeko zein berdintasun-politika publikoak garatzeko arrisku-egoeren aurrean. María de Maeztu Forum Feministari emandako sariaren bidez, gainera, epaimahaiak gure aurreko emakume guztien borroka feminista aintzatetsi nahi izan zuen, garrantzitsua delako feminismoaren kontaketa genealogikoa egitea, beharrezkoa delako aurrekoek garatutako lanari begiratzea eta berau balioestea aurrera egiten jarraitzeko, eta beharrezkoa delako belaunaldi gazteei transmititzea feminismotik bakarrik jarraitu ahalko dugula berdintasunerantz aurrera egiten.

Emakunde saria



3.4.9. Emakunderen webgunea eta sare sozialak

Emakundek sarean duen presentzia alderdi grafikoan birdefinitu da, bere webgunearen alderdi estetiko eta funtzionalean norabidea aldatuta, baina Euskadi.net-en estilo liburuko gidalerroak errespetatuz. Webgunea herritarrentzako zerbitzuaren parametro zorrotzetarantz bideratu da. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukien kontsulta gai-arlo batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, bai eta sare sozialekin, Irekiarekin, Blogekin, eta abarrekin elkarreraginean aritzeko.

2014an, sare sozialen aldeko apustuari eutsi ez ezik, bultzada handia eman zaio. Hala, Facebook eta Twitterreko presentzia areagotu da, eta nabarmen gora egin du jarraitzaileen kopuruak. 2014ko abenduan, 1.738 jarraitzaile zituen Facebookeko kontuak. Urte horretan, hilero-hilero 50 pertsona inguruk bat egin dute profilarekin. Jarraitzaileen % 81 emakumeak dira, eta adinari dagokionez, % 47k 25 eta 44 urte artean dituzte (% 24k, 25 eta 34 urte artean, eta % 23k, 35 eta 44 urte artean). Twitterreko kontuan, 1893 jarraitzaile zituen Emakundek 2014ko abenduan.

Bi kontu horietan, Emakunde aldizkariko berrikuntzak azaltzen dira, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko artikulak eta dokumentu interesgarriak ere. Gizonduz ekimenerako kontu bat ere badu Emakundek Facebooken. Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka dagoeneko YouTube. Azkenik, Emakunderi buruzko albisteak eta eguneraketak agertu dira Irekia atarian. Sareetan eta ingurune digitalean egindako lanaren emaitza gisa, 2014ko ekimen digital onenaren sarirako hautagai izendatu zuen Deiak Emakunde, komunikabide digitaletako ekimen onenak aintzatesteko antolatutako II. Topaketan.

3.4.10. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan

Emakundeko ordezkari gorenak askotariko erakunde, elkarte, enpresa eta entitateek antolatutako jarduera ugaritan parte hartu du. Gizarteko esparru guztietan, berdintasunaren aldeko lana laguntzeko erakundeak duen beste modu bat da hori. Izaskun Landaia Emakundeko zuzendaria mota horretako ekitaldi askotan izan da 2014an. Hona hemen batzuk:

- Ordiziako Kimetz emakume-elkartearen 20. urteurrena.
- Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegiari buruzko Mugarik Gabek egindako argitalpenaren aurkezpena.
- Berdintasun-politikei buruzko hitzaldia, VI. Berdintasun Plana aurkezteko ekitaldian, Getxon.
- Emakumezkoen Futbol 11ko Txapelketa Triangeluarra Gernikan.
- Gaurko Andreak 2014ko sarien banaketa Sopuertan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko hitzaldia Oñatin.
- Emakumeen Ekintzailetza eta Gizarte Berrikuntza Foroa, Deustuko Unibertsitatean, Bilbon.
- «Pertsonen partaidetzan oinarritutako enpresa-ereduak» jardunaldia, Donostian.

- «Emakume kartzelaratuak: zigorra, feminitatea eta otzan bihurtzea» jardunaldia, EHUKo Letren Fakultatean, Gasteizen.
- FEKOORen 35. urteurrena ospatzeko ekitaldia, Bilboko Alhondigan.
- AED Enpresa Sariaren VIII. Edizioko epaimahaikide izatea eta berau banatzeko ekitaldian parte hartzea, Bilbon.
- «Europa Foruma. Euskadiko Tribuna» Bilboko Ercilla hotelean.
- Emakunderen lan-ildoak Bizkaiko elkartegintzari aurkezteko ekitaldia, Bilbon.
- EUROBASKen XVII. Batzar Nagusia, VI. Kazetaritza Saria eta eztabaida europarlamentariekin batera, Eusko Legebiltzarrean.
- Emakumezkoen 30. Nazioarteko Partida, Euskal Selektzioa - Irlandako Errepublika, Azpeitian.
- Bilera Canelones-eko (Uruguay) Intendentziako Genero Alorreko zuzendari Araceli Delgado-rekin.
- Amagoia Elezkanoren hilketaren lehenengo urteurrena dela-eta Laudion egindako kontzentrazioa.
- Berdintasunerako VII. World Kafea, «Aberastasun-kontzeptua berritzen» Lur Gozoa elkarteak Bilbon antolatutakoa.
- «Esklerosi anizkoitzaren 1.000 aurpegiak» erakusketaren inaugurazioa, Bilboko Arte Ederren Museoa.
- VII. Urteko jardunaldiak: «Familia eta komunitatea zaintzen bizi-zikloan zehar». «Hitz egitea. Zaintzaren etorkizuna, generoaren ikuspegitik», Bilbon.
- Jardunaldia: «Indarkeria sexista eta xenofobia», Basaurin.
- Ezkerraldeko, Meatzaldeko eta Enkarterriko Emakume Elkarleen VII. Topaketa, Sestaon.
- Getxoko Emakumezkoen Nazioarteko VII. Futbol Txapelketako sarien banaketa.
- Innobasqueren Ohiko Batzar Nagusia, Donostian.
- Gasteizko VII. Emakumeen Lasterketako sarien banaketa.
- Hitzaldia: «Genero-indarkeria, enpleguaren babesa eta haren zaintza lan-negoiazio kolektiboan», Donostiako Zuzenbide Fakultatean.
- Gosaria Euskadiren Madrilgo Ordezkaritzan, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak azaltzeko.
- Emagune mintegia, Bilbon.
- Irungo Alarde Mistoan parte hartzea eta berau babestea.
- «Emakumeen eskubideen aldeko defentsa» parlamentu-jardunaldia, Madrilgo Diputatuen Kongresuan.
- Eraserik gabeko jaien aldeko kanpainaren aurkezpena, Santurtzin.
- «Elgoibarko emakumeak eta industria» erakusketaren inaugurazioa, Elgoibarren.
- Hondarribiko Alarde Mistoan parte hartzea eta berau babestea.
- «Clara Campoamor-en arrastoen atzetik» proiektuaren aurkezpena, Madrilgo Senatuan.
- AVIFESen Emakume Alorraren aurkezpena, Bilbon.
- Alargunen Asanblada Nazionalaren Topaketa Euskadin.
- Emakumeak eta Desgaitasuna XI. Foroa: «Emakumeak, desgaitasuna eta berdintasun-politikak: 35 urteko borroka bazterkeria bikoitzaren aurka», Bilbon.
- Gerraren Ondorioei buruzko II. Biltzarra, Gasteizen.

- Justizia trantsizionalari buruzko II. Jardunaldia, «Egia eta oroimena adiskidetzeko prozesuetan», Donostian.
- Landako Emakumeen Nazioarteko Eguna. «Landa-eremuko emakumeak berezko dirdirarekin». Argia proiektua. Orio
- «Sexu-aniztasuna eta genero-indarkeria: berdintasunerako zenbait erronka unibertsitatean», EHUren Bilboko campusean.
- Emakumeei eta Kirolari buruzko IV. Mintegia, Aspasia-k Bilbon antolatutakoa.
- Bilera Marina Boschettirekin, Emakumeen Alorreko arduraduna dena Argentinako Mercosur-eko Familia Ekoizleen Konfederazioan.
- «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren 2014ko Jaialdiaren (6. edizioa) amaiera-ekitaldia eta sari-banaketa, Bilbon.
- Solastiar-en 20. urteurrenaren harira egindako prentsaurrekoa. Audioko Emakume Elkarteak.
- «Turismoa eta generoa: emakumeen papera negozio turistikoan» jardunaldia, Basquetourrek antolatutakoa.
- «Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorian III» ikastaroa, Bilbon.
- Jardunaldia: «Adineko emakumeak eta berdintasuna: eman beharreko urratsa?», Eusko Legebiltzarrak Bilbon antolatutakoa.
- EHUko jardunaldi honen inaugurazioa: «Finantza-zuzenbideko erronkak genero-berdintasunaren alorrean: euskal kasuan arreta jarritz».
- Berdintasunari buruzko hitzaldia Galdakaoko CEPA moduluak.
- Jardunaldi honen inaugurazioa: «Genero-indarkeria eta gazteria: komunikabideen bitarteko papera», EHUren Leioako campusean.
- Lan Harremanen Eskolaren 25. urteurrena. Ikasketak amaitu dituzten ikasleei diplomak emateko ekitaldia. «Berdintasuna eta diskriminazioa eza lan harremanetan, generoa dela medio» hitzaldia, Leioan.
